

Martxoak 8, Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, herriz herri, egingo diren hamaika aldarrikapen- eta ospakizun-ekitaldiren egitarauak jaso ditugu. Eguneroko borroka ikusezinei zuzen begiratzen zaien egunak dira datozenak. Behingoz egunero bedi, urtean behin barik!



hiruka

Uribe Kostako astekaria



51. zenbakia

2016ko
martxoaren 3tik
martxoaren 9ra arte

«Athleticen egotea niretzat gauzarik handiena da»

Sabin Merino Zuloaga aurrelari urdulztarrak pisu handia hartu du Athleticen; bitartean, kimuak entrenatzen ditu herrian. ▶20-21



KULTURA URIBE KOSTA

Prest, Uribe Kostako bertsolari-txapelketa

Algortako Bertsolari Eskolak antolatuta, 24 bertsolari lehiatuko dira; zapatu honetan, martxoak 5, hasiko da sariketa, Leioan.



Kanporaketa bi eta finalaurreko bat jokatu dituzte bertso-poteoaren formatuan; emanaldi bakoitzean, lau bertsolari kantatuko dute, hiru saiotan. Finalera, sei bertsolari helduko dira, martxoaren 19an, Plentzian. ▶18

KULTURA SOPELA

ArgIHizkiak: azken geltokia Sopelako kultur etxean

Uribe Kostako literatur lehiaketaren laugarren edizioaren erakusketa ibiltaria Kurtzion amaituko da. Martxoaren 20a arte egongo da argazkiez eta testu laburrez gozatzeko. ▶18



Egunero 24 orduz Uribe Kostako albiste gehiago gure atari digitalean: www.hiruka.eus

Udalaren aurrekontu orokorraren likidazioa dela eta, tirabirak

Udalaren 2015eko aurrekontu orokorraren likidazioaren berri eman zuten otsaileko osoko bilkuran. PPren iritziz, gobernu-taldearen kudeaketa «txarra» agertzen du likidazioak, «erabil zitekeen 50,5 milioi euroko diruzaintzaren soberakinak erakusten duenez». Gobernu-taldeak, berriz, uste du baliabideen kudeaketa «ona» egiaztatzen duela horrek, «aurreikusitako zerbitzuak aurrera eraman, inbertsioak egin eta zorpetzea murriztu zelako, likidazio-maila berbera mantenduz». Azaldu dutenez, likidazio horrek ahalbidetzen du Udalkutxatik datozen diru-sarreraren 4,5 milioi euroak murriztea.

Xake plaza eta Gobela kiroldegia

Udalbatzak Areetako Xake plaza berritzeko PPren proposamena onartu zuen; halere, lanei hasiera eman baino lehenago, herritarren eta talde politiko guztien proposamenak kontuan hartuko dituzte. Gobela kiroldegia dagokionez, azpiegituraren beharren inguruko azterlan bat egitea adostu zuen Udalbatzak. Halaber, EH Bilduren mozioa onartu zuten, energia-kontsumitzaile ahulenak babesteko neurriak hartze aldera, besteak beste. ◀

Paisaia ikertzen ari dira

Getxoko kostaldea ezagutzeko, Paisaiaren Ekintza Plana abiatu dute, Arrigunagatik Ereagaraino.

Udalerriko kostaldea aztertuko du Udalak, Arrigunagatik Ereagaraino, Paisaiaren Ekintza Planaren lehenengo ikerketan. «Getxo Paisaia: Arrigunaga-Ereaga» goiburupen, ikerketa-prozesu horrek kilometro bat pasatxo hartuko du udalerriko kostaldeak dituen 7 kilometroetatik. Arduradunen arabera, paisaiak gunee «oso esanguratsuak» dauzka eremu horretan, berbarako Kantera (Arrigunagan), Abasotako lurmuturra, Jenaratxu parkea, Ereaga hondartza eta Begoñako gale-riak. Hala, martxotik irailera bitartean, Getxoko enpresa batek ikertuko du tar- te horretako paisaia. Bitartean, infor- mazio-jardunaldiak, gidatutako bisitak eta lan-tailerrak ere egingo dituzte. Ho- rretarako, Eusko Jaurlaritzako Inguru- men eta Lurralde Politika Sailaren diru- laguntza erabiliko dute: 21.000 euro. Parte-hartzearen planerako ere diru-la- guntza emango du Udalak: 8.000 euro.



info+: getxopaisaia@getxo.eus / 946 430 654

Arduradunek azaldu dutenez, paisaia babesteko, kudeatzeko eta antolatzeko tresna bat da paisaiaren ekintza-plana. Hala, plana idazten denean, Arri- gunaga eta Ereaga arteko kostaldeko paisaiaren ezaugarri esanguratsuenak identifikatuko dituzte. Prozesu horre- tan, alderdi teknikoak, kulturalak eta sozialak aintzat hartuta, paisaiak dauz- kan balio nagusiak eta bizi dituen ga-

tazka garrantzitsuenak identifikatzen ahaleginduko dira. Ekintza publikoei dagokionez, hilaren 4an informazio- jardunaldia egingo dute, 18:30ean, Villamonteko kultur etxean. Bihara- munean, hilak 5, bisita gidatua egin- go dute Arrigunagatik Ereagaraino, 11:30etik aurrera. Azkenik, tailer bi es- kainiko dituzte, oraindino zehaztu ba- rik dagoen datan. ◀

Alde Hemendik Egunean egoteagatik, 100 euroko isuna

Joan den urteko urriaren 10ean, Al- gortatik Hanka indar okupatzaileen kontrako mugimenduak Alde Hemen- dik Eguna antolatu zuen, urriaren 12an ospatzen diren Hispanitatearen eguna eta Guardia Zibilaren eguna salatzen asmoz. Bada, bost hilabete igaro dira ordutik, eta egun hari lotutako 100 eu- roko isunak jaso dituzte Algortako 10 gazte inguruk, Guardia Zibilaren kon- trako oihuak egin zituztelakoan. Sala-

keta-gutunaren arabera, gazte horiek guztiak honelako oihuak egin zituz- ten: «ez zaituztegu nahi, ez zaituztegu behar», «torturatzailerak alde hemen- dik» eta «txakurrak».

Heldu berri diren isun horiek adie- razpen askatasunaren kontrako era- so «larria» direla uste dute Algortatik Hanka-ko kideek, eta «errepresio ho- rren aurrean, herri gisa» erantzungo dutela iragarri dute. ◀

Berdintasunaren aldeko elkar-teentzako laguntzak

Hilaren 26ra arte egongo da za- balik eremu guztietan emaku- meen parte-hartzea errazten duten eta udalerriko gizonen eta emakumeen berdintasuna bultzatzen duten pro- grametarako eta proiektuetarako di- ru-laguntzak eskatzeko epea. Udalak 23.310 euro zuzenduko ditu deialdi ho- rretarako. Guztira, diru-laguntza lerro bi aurreikusi dituzte: batetik, emaku-

meen elkar-teen jarduera arruntaren funtzionamendurako, eta, bestetik, emakumeen eta gizonen arteko ber- dintasuna sustatzeko. Eskaerak uda- lerriko Herritarren Arreta Bulegoetan eta Legeak aurreikusten dituen lekue- tan aurkeztu behar izango dituzte di- ru-laguntzak jasotzeko interesa duten guztiak. ◀

info+: www.getxo.eus

ZURE HATZAREN
EZ GALTZEKO

**poesia
musikaz
bustia**

itxaro borda
IDAZLEA

itsaso gutierrez
GITARRA-JOTZAILEA

Martxoak 10 Marzo
20:00

Azebarri Kultur Elkartea
Euskal Herria kalea, Algorta

DOAN



Aluzsinatzen

URIZ
MORENO AJURIA
Putxa dinostazu,
txarra balitz legez

Hau ez da
gure bakea,
inundik inora

ETak borroka armatua amaitutzat eman ebantik sarritan entzun ohi doguz «bake-prozesua» eta «bakea» bezalako berbak. Indarkeria jakin baten desagerpenak bakea berez ekarriko balu bezala, indarkeria horren falta bake-egoeratzat hartuz. Bestelako indarkeriarik egongo ez balitz legez, ala bestela esanda: indarkeria-egoera batzuk normaltzat (naturaltzat) emonez. Izan be, indarkeria-espresio batzuk gairiditzez «normalizazio politikoan» sartu garala dinoe batzuek. Eta neure buruari galdetzen dautsat zein normalizazioz ariko ete diren, eta nori begirako bakeaz, alegia.

Bizi garen sistema kapitalista eta heteropatriarkalak ahalbide-tzen dau (eta beraz baliatu bere horretan iraunarazteko) emakumeok sufritzen dogun egiturazko indarkeria: gutxiespena, esplotazioa, diskriminazioa, irainak, sexu-jazarpena, kanon estetikoaren inposizioa, prekaritatea, bortxaketak, objektizazioa, jipoiak, eraso lesbofoboak, erailketak, etab. Indarkeria fisikoa, psikologikoa, sexuala, ekonomikoa, sinbolikoa... Geure eguneroko bizipen eta errealtate izaten darraite. Bakerik ez guretzat, beraz, ez emakumeontzat ezta, oro har, identitate ez normatibodunontzat be. Batzuek eraiki gura daben bake horretan zapalkuntzara kondenuatu jarraituko dogu askok.

Borroka feministagaz, auto-defentsa feministaren bitartez ahalbunduz, feministon arteko saretze eta aliantzek indarturik, egin ahal deusagu aurre pairatzen dogun zapalkuntza kapitalista-patriarkalari. Bakeak be feminista izan beharko baitu, ala bestela ez da izango.

Martxoaren 8an ezer ospatzeko ez; guztia borrokatzeko, irabazteko, eraikitzeko, bai. Feminismotik eraikiko dogu bakea. Feminismoak egingo gaitu Herri! ◀

Getxo

Emakumeen Nazioarteko Egunean hamaika ekitaldi, Getxon

Datorren martitzena izango da martxoaren 8a, beste modu batera esanda: Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna. Hori horrela, udalerriko elkarte, norbanako, erakunde eta Udalak berak ere emakumeen aldeko egun hori gogorarazteko hainbat hitzordu antolatuta dituzte. Ekimenak hilaren 6an, domekan, hasiko dira; eguerdiko 11:00etan «Zenbat kostatu, zenbat balio? Eraiki dezagun *zaintzartasuna*» berbaldia egingo dute, Bilgune Feminista, Gizatiar, Eskuz Esku, Haziak, Mujeres con Voz,

Itzubaltzetako Emakumeen Asanblada eta E-civis elkarteek antolatuta. Ordu bi beranduago, «Aktibatu zure ahotsa» tailerrekoek performancea egingo dute, San Nikolas plazan. Hilaren 8an, martitzenean, «Erantzunkidetasunari buruzko ipuin baten sormen parte-hartzailea» hitzaldia egongo da 18:00etan, Villamonteko kultur etxean. Ondoren, udalerriko eragile feministek manifestazio bi egingo dituzte: 19:00etan, Algortan; 20:00etan, Itzubaltzetan. Hurrengo egunean, eguaztenean, Marina Sagastizabal soziologoak «Generoa eta

denboraren erabilera urteetan: jendar-te berdinzale baten bidean» berbaldia emango du Villamonte kultur etxean, 19:00etan. Hilaren 10ean, egunean, berriz, emakume errefuxiatuen inguruko hitzaldia egongo da, 18:15ean, Itzubaltzetako elizan.

Poesia, musikaz bustia


Itxaro Borda idazleak eta Itsaso Gutierrez musikariak «Zure hatzaren ez galtzeko» saioa eskainiko dute, euskaraz, hilaren 10ean, 20:00etan, Azebarri kultur elkartearen; Udalak antolatuta. ◀



GURE IKASLEEN AHOTAN

«Teoria eta praktika txandakatzen duen metodologiari esker, asko ikasten ari naiz»

Iñigo Barredo Arrieta Industria Elektronikako Ingeniaritza graduako 3. maila ikasten ari da MONDRAGON UNIBERTSITATEAN. Elkarrizketa honetan azaltzen digu nolako metodologia erabiltzen duten, proiektuen garrantzia eta beste hainbat kontu.



Zergatik aukeratu zenuen Elektronikako Ingeniaritza gradua, eta zergatik MONDRAGON UNIBERTSITATEAN?

Betidanik izan dut interesa teknologiaren arloan. Izan ere, hasieran ingeniaritza mekanikoa ikasi nahi nuen, beharbada nire anaia nagusiak ikasten zuenez, ezagunena nuelako. Baina gero pixkanaka elektronikaren garrantzia eta aplikazio ezberdinak ezagutzen hasi nintzen (robotika, sistema integratuak...) eta horiek elektronikaren inguruan interesa sortu zidaten. Horretaz gain, elektronikaren erabilpenaren gaur egungo hazkuntza ikusita, elektronika ikastea aukeratu nuen. Mondragon Goi Eskola Politeknikoa aukeratu nuen hainbat faktorerengatik, baina garrantzitsuenak hauek dira: inguruko enprekin duen harremana eta POPBL inguruko ikasketak (sehi-hilabete guztietan proiektu bat garatzen da ikasitakoa finkatzeko).

Nola baloratuko zenuke orain arte bizitako esperientzia?

Orain arteko esperientzia oso ona izan da. Unibertsitatean ezer ez dela ikasten esaten duten pertsona asko ezagutzen ditut, baina nire kasuan behintzat, asko ikasten ari naiz, eta gauza garrantzitsuak eta erabilgarriak gainera.

Nola definituko zenuke ikasteko metodologia?

Oso ondo planteatutako metodologia iruditzen zait. Seihilabete-koan zehar klase teorikoak izaten ditugu kontzeptuak ikasteko, zenbait klase praktikorekin txandakatuta, horiek benetan ulertu eta bereganatzeko. Azkenengo hilabetean, taldeka, proiektu bat garatzen da klasean ikasi ezin izan diren nozioak edukitzeko eta klasean ikasten diren garrantzia ulertzeko. Beraz, esan dezaket asko ikasten dela era honetara.

Egindako proiekturen bat azalduko diguzu?

Egin ditugun proiektu guztiak gustatu izan arren, aipagarriena robot filogidatua izango litzateke. Robota entzuteak askok filmetan agertzen diren robot humanoideetan pentsatzen dute, baina robotikaren arloan anitz robot mota daude, hala nola, dronak, beso robotikoak, etxe robotikoak eta gure kasuan plataforma mugikor bat egin dugu bi gorpilen bidez mugiarazten duguna. Robot horren zeregina lurrean jarritako kable bati jarraitzea da inork gidatu gabe, hau da, automatikoki zirkuitu bat betetzea. Horretarako robotaren atal guztiak diseinatu eta muntatu behar izan ditugu, hala nola: baterien kargadoreak, trakzio sistema, robota ondo mugiarazteko softwarea programatu, eta abar.

Zer moduz moldatzen zarete talde-lanean?

Taldean lan egitea oso tresna erabilgarria da, arlo askok parte hartzen duten proiektuak garatzeko. Oso emaitza onak lortu ditugu orain arte taldean lan egiten.

Zeintzuk dira zure etorkizunerako asmoak (ikasten jarraitu, lana bilatu, atzerrira joan...)?

Gaur egun hirugarren mailan nago, beraz oraindik ibilbide luzea daukat aurretik. Gradua amaitzean, robotikako masterra hartuko dut eta, ahal bada, atzerrian ikasi nahi nuke, Suitzan edo Estatu Batuetan, posible bada. Gradu honen amaiera, hala ere, oso urrun gelditzen zait oraindik ezer planifikatzeko. •

Erandio



Ohi lege, mobilizazio nagusia martxoaren 8ko eguerdian egingo dute, udaletxearen aurrean.

Pauso zehatzak parekidetasunerantz

Martxoaren 8ko adierazpena onartu du aurten ere Erandioko Udalbatzak, Eudelena berea eginez. Zortzi puntuak gehiago zehazteko eskatu du EH Bilduk.

Emakumeen Nazioarteko Egunaren harirako adierazpena onartu zuen Erandioko Udalbatzak pasa den otsailaren 25ean. Eudelen testuan, oinarritzko zortzi puntu markatu dituzte, Udalak konpromiso zehatzak gara ditzan. Honako hauek dira: demokrazia izan dadin, «emakumeek eta gizonen parte-hartze berdina izan dezaten erabakiak hartzeko prozesuetan»; parekidetasuna «agenda politikoaren erdigunean» egotea; «berdintasunaren aldeko konpromiso formal bat» hartzea, «Tokiko Bizitzan Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasuna Lortzeko Europako Gutuna» sinatuz; berdintasuna «sustatzeko neurri politiko konkretuak» hartzea «eta horren inplementaziorako beharrezkoak diren finantza eta giza baliabideak eskaini ditzatela»; emakumeek «pairatzen ja-

rraitzen duten indarkeria salatzea»; «genero-indarkeria prebenitzeko eta horren biktimak babesteko eta laguntzeko politika eta lege bateratuak» eskatzea; «gerra eta jazarpenetik ihes eginda» iristen diren emakume eta umeen «behar espezifikoak» kontuan hartzea; eta «maila globalean elkarlanean aritzeko borondatea» erakustea. Deklarazioa EAJ, Ganemos, PSE-EE eta PPren aldeko botoakaz onartu zen, EH Bildu abstenitu egin baitzen. Independentistek baliatu gura izan zuten eztabaida berdintasun-teknikari baten lanpostua, ikerketa-beka bat eta beselako konpromiso zehatzago batzuk onar zitezen. Halere, euren proposamena baztertu zuten EAJ, PSE-EE eta PPK. Egokiñe Angulo EAJren eldunaren ustez, onartutako testuan «pausoz pauso goazela adierazten da». ◀

ekimenak: HIRUKAko 8. eta 17. orrialdeetan

Astrabuduan parking gehiago eskatu dute auzokideek

Auzoko aparkalekuaren arazoez kezkatuta, 215 bat astrabuduar atera ziren kalera pasa den barikuan, euri zaparrada baten azpian. «Parkingi konponbidea orain!» goiburupeko martxan, manifestariak eskatu zuten autoak uzteko behin-behinean lekuak egokitu ditzaten, gutxienez anbulatorioaren ondoko aparkalekua zabaldu arte. Besteak beste, metro ondoko orubea eta Kossler lantegi zaharrekoa konpontzea gura dute. Manifestazioan parte hartu zuten Arantxa Cenitagoia Ganemoseko eta Ana Crespo EH Bilduko zinegotziek. Barikuan batuko da parkingen gaineko udal mahaia. ◀

Kalezulo gaztetxeak lehenengo rounda irabazi du

Erandioko Gazte Asanbladak (EGA) Ejendaurrean ospatu du Kalezulo-
ren okupazioagatik epaitu zituzten gazte biei absoluzioa eman izana eta gaztetxea itxeko ahalegin hori oraingo bertan behera utzi izana. Halere, EGAK ohartarazi du Ereaga Gestion SLko konkurtso-administratzaileek Bilboko 5. epaitegiko epaiari helegitea ipintzeko aukera dutela. Gainera, bide zibiletik ere egin lezakete zentro auto-gestionatuaren aurka, balizko hutsarazte baten ostean eraikina saldu ahal izateko «funts putre bati», gazteen esanetan. Bien bitartean, Udalak jardura-baimenik ukatu dio zentroari. ◀

Abaroak kaltetutakoek etxea izan dezaten: 400 etxebizitza

Pasa den otsailaren 25ean, Erandioko Udalbatzak behin betiko onartu zuen Tartanga-Kiroldegia eremuari dagokion Udal Planeamendu Arau Subsidiarioen aldaketa puntuala. Horren atzean daude Azpiegitura foru-enpresak altxatuko dituen babes ofizialeko 400 etxebizitzak. Eremu horretako 17.000 bat metro koadro gako nagusia dira horretan, Erandioko Udalak 2010ean Azpiegituragaz hitzartu baitzuen hori. Etxe horien salmentaz finantzatzeko dute Abaroak kaltetutako 67 familien birkokapena; izan ere, 2007an, etxe barik utzi zituzten Altzagako Ibarra eta Antxon Fernandez kaleetako zein San Agustín plazako auzokide horiek.

Egoitz Bilbao Hirigintza zinegotziaren aburuz, operazio horren aurka bozkatzeko auzokideen sufrimenduagaz jolastea da. Gaineratu zuenez, «kontran bozkatzeko edo abstenitzea 7.052 metroko lorategiei ezetz esatea da», baita 16.257 hornidura-metro,



Eremuaren erdia lorategiak izango da.

402 zuhaitz eta 913 parking-lekuri ere, «haietako 255, publikoak». Jeltzaleak esan zuen Udalak 3.850 metro koadro irabaziko dituela behar bereziak dituzten kolektiboentzako erresidentziagunerako. EH Bilduk, ordea, salatu zuen etxebizitza-kopuru hori ez dela behar, non eta Altzagan balizko eremu berde bakar izan dezakeen gune horretan. Era berean, Joseba Goikouria alkateari galdetu zioten ea hori den «EAJren apustu politikoa». Goikouriak auzokideei emandako hitza beteko duela erantzun zuen. ◀

GetxoGas

GetxoGason
Euskararekin
bat!!

Getxo eta Berango artean
94 430 15 00

**GURE
ETXEA**
taberna

HAMBURGESAK, PINTXOAK ETA GIRO EDERRA
Caja de Ahorros, 14 - Romo / T. 94 463 68 80

GOIZEAN
«Gozoki eta prentsa,
gutxi denik ez prentsa»

Prentsa · Fruitu lehorrak
Aldizkariak · Libxarrieriak

Orduña mendatea, 1. GETXO · 94 430 22 13

prentsa · aldizkariak

ITXASGANE

Getxoko kirol portua · 94 491 53 21

EKIN
TABERNA · JATETXEA

Bolue 4, ALGORTA
94 608 04 62

TXIBERRI
EDANTOKIA

FRONTOI PARTIKULARRA



AITA GOTZON 4, URDULIZ
94 676 07 15

Leioa

Martxoaren 8a gogoratuko dute

Emakumeen Nazioarteko Eguna aldarrikatzeko, gehienbat kultur ekitaldiak antolatu dituzte Udalak eta Andrak elkarteak; antzerkia, musika eta dantza egongo dira aukeran.



Boulevardaren egingo dute martxoaren 8ko kontzentrazioa, 13:00etan.

Urtero legez, hainbat ekintza antolatu dute Udalak eta Andrak elkarteak, martxoaren 8a Emakumeen Nazioarteko Eguna dela aldarrikatzeko. Data hori akorduan izateko, kultur ekitaldiak izaten dira nagusi udalerrian. Oraingoan, barbarako, barikuan, martxoak 4, Martirio abeslari andaluziarra igoko da Kultur Leioako entzungelako agertokira, musikaren munduan egin duen 30 urteko ibilaldia laburbiltzeko asmoz. Hala ere, aldarrikapenak kalera ateratzeko tarte ere egongo da: martitzenean, martxoak 8, elkarteratzea egingo dute Boulevarden. Hitzordua 13:00etan ipini dute. Bestalde, apirilaren 15era arte, indarkeria matxista prebenitzeko tailerrak egingo dituzte Leioako ikastetxeetan. ◀

Egitaraua

Martxoaren 31ra arte

Berdintasunari buruzko liburuen erakusketa, Kultur Leioako liburutegian.

Martxoak 4, barikua

21:00 *Martirio 30 años* kontzertua, Kultur Leioan. Sarrera: 15 euro.

Martxoak 8, martitzena

13:00 Kontzentrazioa, Boulevarden.

14:00 Bazkaria. Izen-ematea: Andrak emakumeen elkarteak (Sabino Arana, 78).

Martxoak 10, eguna

19:00 *Servicio domestico* antzezlan (Kafe Huts), Kultur Leioan. Gonbidapenak: Kafe Huts, Andrak eta Gizarte Zerbitzuak.

Martxoak 11, barikua

20:30 *El florido pensil niñas* (Tanttaka), Kultur Leioan. Sarrera: 15 euro.

Martxoak 18, barikua

21:00 Dom La Nena kantariaren kontzertua, Kultur Leioan. Sarrera: 8 euro.

Sabino Arana kalearen konponketa, berbagai

Hirigintza aldetik, Sabino Arana kalea «oso txarto dagoela salatzeko», prozesu parte-hartzaile bat ipini du martxan Leioako EH Bilduk; oinezkoentzat egokituz berritu gura dute kalea ezkertiarrek. Besteak beste, Sabino Arana eta Udondoko Bulebarreko bizilagunei gutun bana bidaliko diete; horrez gainera, inguruko dendari eta bizilagunei galdeketa egingo diete. Herritarren beharrezane buruzko diagnosia egin, eta kalea oinezkoentzat jartzearen inguruko kezka, zalantza eta ekarpenak jaso gura ditu koalizioak. Lehenengo fase hori amaiera emateko, martxoaren 17an, eguna, oinezkoentzako egokitzapenak ekar ditzakeen ondorioen inguruko berbaldia egongo da Sakoneta kiroldegian. Saioa 19:00etan izango da.

Tranbiaren proiektua

«Ekimen horren helburua eztabaida baketsu eta parte-hartzaile bat bultzatzea da, zeinaren bidez Sabino Aranari eman diezaikegun erabilerei buruz hitz egingo dugun, eta, zaharkitua geratu den tranbia-proiektuari buruzko informazioa trukatu dugun», azaldu dute Leioako EH Bildukoak.

Hain zuzen ere, egitasmo hori Sabino Aranaren konponketak atzera-



Egoera txarrean dago Sabino Arana kalea.

tu duela adierazi dute udal agintari jeltzaleek: «Eusko Jaurlaritzak dirua jarri behar zuen Eusko Trenbide Sarearen bitartez Sabino Arana kalea berregiteko. Gure ahaleginak ETSk diru hori mahai gainean jar zezan oinarritu ditugu; eta, zorionez, aurtengo aurrekontuetan partida bat sartzea lortu dugu. Udalak obra egiteko jarri beharreko diruaren murrizketa nabaria suposatuko du horrek», azaldu du Iban Rodriguez Hirigintza zinegotziak. Orain, proiektua berrikusten ei dabil. Horren ostean, Sabino Aranako auzokide zein merkataria kaz batzarrek antolatu gura dituzte, euren iritzia jasotzeko. «Espero dezagun kalearen lizitazioa urte honetan egin ahal izatea; eta, laster, disfrutatzeko kale berri bat izatea leioaztar guztiek», aipatu du agintari jeltzaleak. ◀

Daborduko erabil daiteke LeioaZabalik udal webgunea

Erabilgarri dago Leioako Udalaren egardentasun-ataria; «governu irekiaren ideiaz bat datorren proiektua da hori, udal informazio guztia herritarren eskura jartzeko asmoa duena», agintari leioaztarren berbetan. LeioaZabalik webgunearen bitartez, leioaztarrek aukera edukiko dute, besteak beste, ondoko informazioa eskuratzeko: osoko bilkuretako aktak eta bideoak, zinegotzien eta alkatearen gaineko datuak, gobernu-organoen zereginak, kontratazio-deialdiak zein urtero egiten diren kontratuak, hirigintzako espediente denak, udal ondarearen inbentarioa, eta abar. ◀

info +: leioazabalik.leioa.net

Nagusientzako teknologia berrien gaineko saioak

Teknologia berriei buruzko ekimena martxan dauka Herrigune Leioa egitasmoak; horren barruan, *smartphone* eta oinarritzko informatika-ikastaroak ematen dabiltena Eneko eta Patxi, 11 eta 12 urteko leioaztarrak. Herriko nagusiak dira euren ikasleak. Hala, martxoaren 5ean eta 7an beste saio bi egingo dituzte: zapatuan, Internet eskolak emango dizkiete aitita-amamei; astelehenean, berri, sakelako telefono zein tabletentzako *app*-en inguruan jardungo dute. Ikastaroetan parte hartzeko, aurretik izena eman beharko dute teknologia berriei buruz gehiago jakin gura duten edadetuek. ◀

izen-ematea: 662 610 018

Kalitatezko irakaskuntza euskaraz



0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.

Ingelesa 4 urtetik. Frantsesa DBHn.

Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, merienda, zaintza.

Eskolaz kanpoko aktibitate ugari.

Ikastolen Elkarte Leioako Ikastola bakarra.

Deitu eta informa zaitez!

Tlf: 94 464 23 64 - 94 464 33 07

Artaza auzoa 84 (LEIOA)

info@betikoikastola.net www.betikoikastola.net



Sopela

Urko kiroldegia, berritzera



Berrikuntza lanetarako 820.000 euro aurreikusi ditu Udalak.

Gobernu-taldeak azpiegitura hori eta futbol-zelai biak berritzeko aurrekontu-proiektua proposatu du.

Sopelako Udalak Larrabasterra-ko Urko kiroldegia berritzea aurreikusi du. Horretarako, 820.000 euro inguruko inbertsioa beharrezkoa dela aurreikusi du gobernu-taldeak; halere, Udalak erabaki behar du lanok urtebetean egin, ala hainbat urte beharko dituen. Proiektua

aurrera eroan ahal izateko, oraindino Udalbatzaren oniritzia jaso behar du, eta hala espero du Gontzal Hermosilla alkateak. Azaldu dutenez, futbol-zelai bietako harmailak berrituko dituzte. Bestalde, belar artifiziala duen zelaia ere berritu gura dute. Azken hori 2001ean egin zuten, orain dela 15 urte. Arduradunek diotenez, zelaia 12 urterako zela aurreikusi zuen enpresa eraikitzaileak, eta, daborduko, 15 urte igaro dira. Horrez gainera, Urko kiroldegia «guztiz» berritzeko lanak ere aurreikusi ditu gobernu-taldeak, berbarako: futbol-zelaiaren inguruko segurtasun-heziak berritu, eta korrika egiteko pista egitea, kirol eskaintza handitze aldera. Azken horretarako, Udala URaren oniritziaren zain dago, inguruetan Gobela eta Lemotza ibaiak daude-eta. Lanotarako kanpo-finantzazio bideak baztertu gura ditu gobernu-taldeak; horretarako, «barne baliabideakaz» aurrera eroatea proposatuko du. ◀

Sopelako kuadrillak sagardotegira joango dira hilaren 12an

Kuadrillak sagardotegira joango dira hilaren 12an, zapatuan. Astigarra-gako Sarasola sagardotegira joango dira, 45 euroren truke. Irteera 12:30ean izango da, Elizaren ondoko markesinatik. Buelta, ordea, 03:00etan, Hernanitik. Egun-pasa egiteko, aurretik izena eman behar da, ohiko lekuetan. ◀

Musika-taldeetarako proposamenak gura ditu Jai Batzordeak

Sopelako Jai Batzordeak kontzertuen Skudeaketa «ahalik eta irekien» izateko galdera zehatza bota du: «Zein musika-talde entzun nahiko zenukete Sopela eta Larrabasterrako jaietan?». Jasotzen diren musika-talde guztien artean, aukeraketa bat egingo dute. Proposamenak emailaz edo Facebook bidez helarazi ahal zaizkie. ◀

sopelakojaibatzerdea@hotmail.com

Plentzia

Aurtengo aurrekontuen proposamena aurkeztu dute

Plentziako Udaleko gobernu-taldeak prest du 2016ko Udal Aurrekontu Proiektua. Martxoaren 17ko osoko bilkuran aurkeztuko du egitasmoa, Udala osatzen duten alderdiek horren alde ala kontra egin dezaten. Proiektua udal-webgunean ikus daiteke daborduko; bertan irakur daitekeenez, diru-sarreraren eta gastuen arteko diferentzia o eurokoa izatea aurreikusten du.

Urteari aurre egiteko zenbateko osoa 4.383.308 eurokoa izatea proposatzen du proiektuak, 2015ean baino ia 100.000 euro gutxiago. Aurrekontuen zati handiena, ia %48, ohiko ondasu-

nen gastuetara bideratuko dute. Inbertsio errealerarako, berriz, 109.063,27 euro erabiliko dituzte, guztiaren %3. ◀

info+: www.plentzia.org

Martxoko osoko bilkuran eztabaidatuko dute.

Berango

Aste Santuko kolonietan izena emateko epea, zabalik

Berangoko Udalak Aste Santurako koloniak prest ditu daborduko. Hala, horietan parte hartu gura dutenek aldeztatik izena eman beharko dute udaletxean, martxoaren 8ra arte, hain zuzen ere. Leku kopurua mugatua da, horrenbestez, Berangon erroldatutako neska-mutilek izango dute lehen-tasuna. Kolonietako ekintza denak euskaraz izango dira, eta egokituta egongo dira adin tarte bakoitzari. Ekintza guztien inguruko informazioa kultur etxeetan jaso ahal da. Berangon erroldatutakoek 20 euro ordaindu beharko dituzte; besteek, oster, 40 euro. ◀



Martxoaren 6an, pailazo-ikuskizuna

Lola eta Mimi pailazoek Berango Antzokia bisitatuko dute martxoaren 6an, domekan. Bertan, etxeko txikienentzako emanaldia eskainiko dute, 18:00etatik aurrera. Saioa euskaraz izango da, eta sarrera doan lortu ahal izango da, Antzokian bertan. ◀

KONTXI ZVZVBIZKAR
Urdaitegixa
Kalitatezko elikagaiak zure mahaian
Alangobarri 10, ALGORTA - 94 491 02 93

OSABIDE Hortz-Klinika
Arantza Etxebarria
• Odontologia orokorra
• Ortodontia
• Periodontia
• PADI
Bidebarri 27, beheko eskuina. ALGORTA - 94 430 76 96

ARTOLOZAGA ANAIK
Tailerrak
Mekanika - Karrozeria - Elektronika
Sopelan
Gatzarrine z/g
94 676 00 13
94 676 38 14
www.taileresartolozaga.com
Sestaon
Miguel Servet, 6
94 472 13 74
Jatorrizko bermea mantentzen dugu!

Haur Hezkuntzatik Batxilergora
Gatzarrine bidea 47, Sopela
Tfnoa.: 94 676 02 66 / 689 01 04 28
info@anderdeuna.eus
www.anderdeunaikastola.eus
ander deuna
I K A S T O L A

Uribe Kosta

Emakume langileei gorazarre egiteko...

Egunotan Uribe Kostako

udalerrri guztiek hamaika jarduera antolatu dute, martxoaren 8ari begira.

Urtero legez, Emakumeen Nazioarteko Eguna egingo da egunotan Uribe Kostan. Horretarako, udalek, eragileek zein Mankomunitateak hamaika ekimen antolatu dute; ekimen nagusia, hilaren 13an, domekan, emakumeen mendi-martxa, Plentzia eta Lemoiz artean. Goizeko 09:30etik aurrera, eskualdeko emakumeek ibilbide zirkularra egingo dute herri bi horien artean. Ondoren, 13:00etan, martxoaren 8ko adierazpena irakurriko dute. Herriz herri ere hainbat jarduera egongo dira egunotan, emakume langileari gorazarre egiteko. Gorlizen, berbarako, genero-ikuspegitik aztertzen dabilta hainbat film, Sertutxena aretoan; hurrengo saioak: hilaren 10ean, 18an eta apirilaren 7an (18:30); Plentzian, hilaren 7an «Emakumeen begiradak» izeneko era-



Ekitaldi guztiak ikusteko, ikus: 08. eta 17. orrialdeak.

kusketa aurkeztuko dute, 18:30ean, Goñi Portalen, eta hurrengo egunean, Plentzia eta Gorlizko 26 eragilek kontzentrazioa egingo dute, 20:00etan, Ontziola plazan. Urdulizen, *Big Eyes* filma proiektatuko dute kultur etxean, hilaren 7an, 19:00etan; eta Lemoizen hilaren 8an kontzentrazioa egingo dute, 12:00etan, udaletxe parean. Berangon ere hainbat ekimen antolatu dituzte: film-proiektzioa, udalerriko emaku-

meen antzezlan, eta berdintasunaren aldeko jaia, hilaren 5ean, 12an eta 13an, hurrenez hurren. Sopelan ere asitebeteko jardunaldiak antolatu dituzte: antzerkiak, berbaldiak, lehiaketak eta hamaika kontu egongo dira, besteak beste. Azkenik, Barrikan, ohiko emakumezkoen piragua dema egingo dute, hilaren 6an, 11:00etatik aurrera. Hilaren 8an, berriz, Emakumeen Hitza elkar-teak ohiko bazkaria egingo du. ◀

Berdintasunaren aldeko diru-laguntzetan, berrikuntzak

Emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko jarduerak batzen dituzten proiektuetarako 518.000 euroko diru-laguntzak aurkeztu ditu Aldundiak. Hala banatuko dituzte: 128.000 euro, emakumeen elkarteentzat; 270.000 euro, irabazi asmo bako erakundeentzat, eta, azkenik, 120.000 euro 7.000 biztanletik beherako herrietako udalentzat. ◀



Ikasleek estudio zahar bat okupatu dute campusean

Otsailaren 22an, Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko ikasleek asanbladak ikastegi horretan hutsik zegoen telebista-estudio zaharra okupatu zuen. Topatu.eus agerkiak zabaldu duenez, «euren ikasketa-beharrianak asetzeko eta eraldaketa nahiak gauzatzeko lekua sortzeko» asmoa dute bertan. Aisialdia eta formakuntza uztartuz, hezkuntza-sistemen klase «zapaltzaileen» eta «balioen

kontra» egin gura dute. «Fakultateko botere-harremanak borrokatzeko» modu bat da bere esanetan okupazio hau; «ikasleen mesedetan» eraiki gura dute gunea; ikasketa kolektiboaren bidez, hezkuntza kritikoari lekua eginez. Adierazi dutenez, «Lehiakortasunaren aurka eta lankidetzaren alde egingo dugu, patriarkatuaren aurka eta parekidetasunaren alde, jabetza pribatua borrokatuz eta kolektiboa eraikiz». ◀

Eudel modernizatzeak akordioa lortu dute EAJk eta EH Bilduk

EAJk eta EH Bilduk Eudel Euskadi-ko Udalen Elkartearen Estatutuen sakoneko aldaketa erdietsi dute, udalen autonomian eta elkarlanean oinarritutako fase berri bat eraikitzeak asmoz. Hala, koalizio abertzaleak bere lekua izango du aurrerantzean, elkar-teko zuzendaritza-organoetan. Koldo Mediavilla EAJren Arlo Instituzionaleko arduradunaren arabera, «desadostasunak gainditzeko eta erakundeak herritarrengandik hurbilago egoteko, EAEko udalek elkarlanean aritzeko garaia da». EH Bilduk, berriz, gogoratu du «oraindik ere ibilbide luzea dugula herritarrengandik gertu dauden udal egitura sendo bat eraikitzeak». Hala ere, akordio horren bidez, lan horretan jarraitzeko «tresna» izateko oinarriak jarri direla, eta, aurrerantzean, Eudel alderdi politikoen kontroletik harago, udalen eskuetan geratuko den Udal Elkarteak izango dela iragarri du. Akordio horregaz, udalen autonomiaren defentsarako oinarriak sendotu dituzte, udal txikien errealitateari hobeto aurre egiteko konpromisoagaz. ◀



Tximiskeriak!!

AITOR
GARAGARZA CAMBRA
Langilea

«PNV espainola!»,
«Español el que
no bote», lakoak...

Gaurkoan zirikatzaile etorri naiz, aspaldin kezkatzen nauen gaia ekarri nahi dut. Independentismoa eta identitatea. Azken hamarkadetak inkesten emaitzei erreparatuz gero, ohartuko gara independentzia eta euskal sentimenduarekiko joeran ez direla egon aldaketa sakonik.

Azken aldian, entzun ohi da subjektu independentista berriak sortzeko faktore identitarioak alde batera utzi behar ditugula, independentzia beste esanahi eta praktika batzuekin betez: demokrazia, justizia soziala, gardentasuna, proiektu herritarra... Munduko hitz eta praktika politenekin.

Zertaz ari gara? Besteak beste, ezkerreko independentistok Espainiarekiko konfrontazio terminoak birkokatu eta praktika politiko berriak asmatu behar ditugula. Hau da, *kinder sorpresa* pintura gorria eta horiarekin iraungita egon daitezke, 'espainola' adjektibo deskalifikatzaile moduan erabiltzeak gure kantu-tegi erreperatorioan ez du errimarik, «RRVtik» at bizitza dago...

Etorkizuneko subjektu independentistak euskaldun eta apur bat espainol sentituko dira, euskaldun bezain espainol, soilik euskaldun, frantsesa bezain euskaldun, munduko herritarra, boliviarra bezain euskaldun, espainolagoa euskalduna baino... Argi izan behar dugu, jendarteko sektore horiek guztiak ez badira subjektu independentista bilakatzen prozesu independentista herritarrik ez dela egongo. Horrek ez du esan nahi Sistema eta Espainiarekiko konfrontazioa ekidin behar dugunik, gatazkaren terminoak eta gure praktikak birdefinitu behar ditugula baizik. Hortaz, Independentzia beste esanahi eta praktikaz betetzen hasi behar dugu. Azkenik, Unai Apaolazari *Otorduak* saioan egindako elkarrizketa ikustea gomendatzen dizuet. ◀

hirukagenda

2016ko martxoaren 3tik martxoaren 9ra arte

Uribe Kostako astekaría



El florido pensil estreinatu zutenetik 20 urte igaro dira; orain plazaratu dute «nesken bertsioa». © TANTAKA

LEIOA


Emakumeek ere sufritu zuten eskola frankista

Tanttakak *El florido pensil* *niñas* antzezlan eskainiko du martxoaren 11n, barikua, Kultur Leioan. Obraren «mutilen bertsioa» estreinatu zenetik 20 urte igaro dira; Kike Diaz de Radaren moldaketak Andres Sopenaren testua du oinarri. Saioa 20:30ean hasiko da; eta sarrerak 15 euroan daude. Modu horretan, Tanttakak «berriro zabalduko du, 20 urte geroago,

eskola nazional katolikoko hura; baina, oraingoan, ateburuan, ‘Niñas’ esaten zuen kartela grabatuta zeukan atetik sartzeko».

«Bertatik sartzen ziren neskak ikastetxera, ama jasanakorren eta emazte eztiaren ezinbesteko etorkizunerako prestatzeko», azaldu dute obraren egileek. Fernando Bernuesen eta Mireia Gabilondoren zuzen-

daritzapean, «ironiaz betetako egungo begiradatik», Loli Astorekak, Gurutze Beitiak, Teresa Calok, Elena Iruretak eta Itziar Lazkanok «irakasle koipelustre haien esku utzitako hezikuntza-sistemaren biktima izan ziren neskak interpretatuko dituzte». Emakumeek modu bikoitzean jasan zuten hezikuntza-eza: batetik, ikasle gisa; eta, bestetik, andre legez. ◀



Martxoak 8

Emakumeen Nazioarteko Eguna

Getxo

2016/03/06

11:00 Kafe-tertulia, San Nikolas plazan. Gaia: *Zenbat kostatu, zenbat balio? Erak! dezagun zuintzartasuna*. Antolatzaileak: Algortako Bilgune Feminista, Gizatiar, Eskuz Esku, Haziak, Mujeres con Voz, Itzubaltzetako Emakumeen Asanblada eta E-civis.

13:00 Performancea, San Nikolas plazan. Jabeakuntza Eskolako *Aktibatu zure ahotsa* tailerrean sortutako jarduerak.

2016/03/08

18:00 *Elaboracion participativa de un cuento sobre corresponsabilidad* izenburuko tailerra, Algortako kultur etxean. Susana Rodriguez Santamariagaz. Eskuz Esku-k antolatuta.

19:00 Manifestazioak Algortako Telletxe eta Itzubaltzeira/Romoko Santa Eugenia plazetatik abiatuta. Antolatzaileak: Algortako Bilgune Feminista, Gizatiar, Eskuz Esku, Haziak, Mujeres con Voz, Itzubaltzetako Emakumeen Asanblada eta E-civis.

2016/03/08

18:00 XX. Tarta Lehiaketa, nagusien etxean. Antolatzailea: Itzartu emakumeen elkarteak.

2016/03/09

19:00 Poesia- eta musika-errezitaldia, Kurtzio kultur etxean. Sarrera, doan.

2016/03/10

18:00 Ramiro Pinillari omenaldia, eta pintura lehiaketako sarien banaketa, Kurtzio kultur etxean. Sarrera, doan.

2016/03/11

20:00 Maria Berasarteren fadoak, Kurtzio kultur etxean. Sarrera: 7 euro.

2016/03/13

19:00 *Sindrome de Estocolmo* ikuskizuna (Bufalo Produktzioak), Kurtzio kultur etxean. Gaztelaniaz. Sarrera: 3 euro.

Berango

2016/03/05

19:00 *Perdida* filma, Berango Antzokian. 16 urtetik gorako ikusleentzat. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

2016/03/12

19:00 Berangoko emakumeen emanaldia, antzokian. Sarrera, doan.

2016/03/13

10:30 Berangoko Emakumeen Elkartearen ibilaldia, bere egoitzatik (Torrekolanda Bidea, 8) abiatuta. Frontoian amaituko dute, 13:00etan.

13:00 Berdintasunaren aldeko jaia, nagusien etxeko plazan; euria egitekoian, frontoian. Besteak beste, adierazpen instituzionala irakurriko dute, dantza egiteko aukera egongo da Ifaiki Uribesalgogaz; elkartasunezko pintxo-potea egingo dute Caritasen alde (euro baten truke), eta haur-jolasak eta tailerrak egongo dira aukeran.

Gorliz

2016/03/03

18:30 *50 sombras de Grey* filma, Sertutxengan. Sarrera, doan. Antolatzailea: Uribe Kostako Mankomunitateko Berdintasun Saila.

2016/03/10

18:30 *Amelia* filma, Sertutxengan. Gaztelaniaz. Sarrera, doan. Antolatzailea: Uribe Kostako

Leioa

2016/03/08

13:00 Kontzentrazioa, Boulevarden. **14:00** Bazkaria. Izen-ematea: Andreak emakumeen elkarteak (Sabino Arana, 78).

2016/03/10

19:00 *Servicio domestico* antzezlan (Kafe Huts), Kultur Leioan. Gonbidapenak: Kafe Huts, Andreak eta Gizarte Zerbitzuak.

Erandio

hiruka

Uribe Kostako astekaria



Gehigarri
berezia
2016ko udaberria

Aste Santu honetan ez zaitez etxean gelditu!



***Aisialdirako planak,
turismo eskaintzak eta
eskualdeko gastronomia-gida***

Euskal itsasertzeko arrantza porturik garrantzitsuenetakoa izateaz gainera, bestelako altxorak ere ezkutatzen ditu Getariak... Naturak, historiak eta gastronomiak bat egiten dute, itsasora begira dagoen herrian.



Juan Sebastian Elkano itsasgizonarengatik ezagutzen dute askok Gipuzkoa kostaldeko herria; izan ere, getariar horrek eman zion lehenengo aldiz buelta munduari! Euskal Herriko herri turistiko ezagunenetakoa da Getaria. Bertan oso entzutetsuak dira arraina parrilan egiten duten jatetxeak, eta jatorrizko deitura duen ardo zuria: Getariako Txakolina. Eta, horrez gainera, zer ikus dezakegu itsasoak laztantzen duen herri bitxi horretan?

Getariako alde zaharra tontor harritsu baten gainean dago, San Anton irlaren parean. Irla hori artifizialki batu zitzaion kostari XV. mendean, eta bien artean, babesa ematen diote Getariako kaiari. Mendeetan, herriaren aberastasun-iturri izan da portua. Hain zuzen, alde zaharreko Erdi Aroko kale paraleloak itsasalderantz jaisten dira, eta gaur egun oraindino ere, arrantzari lotuta dago herria.

Aro Berriko harresiaren aztarnak inguratuta dago erdigune historikoa, eta bertan daude monumentu nagusiak, balio historiko handikoak, besteak beste, Salbatore eliza, Zarautz eta Ochoa Ibañez de Olanoren dorreak, hainbat jauregi, etxe gotiko eta barrokoen aztarnak, eta zenbait aztarnategi arkeologiko. Erreferente gastronomikoak ere alde zaharrean bertan aurki ditzakegu, eraikin eta jatetxeen kanpoaldean ipintzen dituzten parrilei zein horiei darien usainei jarraituz...

Salbatore eliza, alde zaharrean

Gipuzkoako estilo gotikoaren adibide nagusietakoa da. 1895ean, Monumentu Nazional izendatu zuten. Elizaren alderik handiena XV. mende amaiera eta XVI. mende hasiera bitartean eraiki zuten; gotiko berantiar estilokoak dira elizaren ezaugarri nagusiak.

Besteak beste, benetan aipagarriak dira erdiko nabe-ko goiko galeriako trazeria flamigeroak eta mende-baldeko fatxadako ate polilobulatuak. Dena den, jatorrizko eraikuntzak hainbat gehikuntza izan zituen ondorengo mendeetan, besteak beste, aipagarriak dira XVII. mende hasierako ate nagusia, eta XVI. eta XVIII. mendeen artean eraikitako kanpandorra.

Salbatore elizaren historia askoz luzeagoa da, hala ere; elizako kriptan egindako indusketa arkeologikoetan, beste tenplu bi aurkitu dituzte, zaharra-koak: bata, Goi Erdi Arokoa, harlauzazko hilobidun nekropoli batez inguratua, eta, bestea, beranduago-koa, neurri handiagokoa, bertan sortu zen 1397an Gi-

‘Getaria’ hitzaz: batzuek, arrain haztegia, latinezko ‘cetaria’ aipatuko dute; besteek, Iparraldeko herria, Cataria, itsasoa ikusten den lekua.

puzkoako Probintzia. Elizaren paretetan, oraindino ikusgai daude hiribilduak jasandako sute eta gerrateen orbainak, batez ere Lehen Gerra Karlistak (1833-1839) eragindako txikizioak. Gerra ostean, hainbat alditan zaharberritu zuten eliza.

Salbatore deunaren elizaren alde ezkutua eza-gutu eta aztarnategi arkeologikoa ezagutzeko aukera dago, «Getaria, artea eta historia» izeneko bisita gidatuei esker. Bisitariek aukera izango dute kriptak, goialdeko galeriak eta Zarautz Jauregiko aztarnategiaren altxor preziatuak gozatzeko (izena emateko: 943 005 831 edo www.zehazten.info).

Behalekua, itsasora

Getariaren xarma bere bistak, kostaldea, natura eta itsas giro idilikoa da, baita horiei lotutako ohiturak ere. Euskal kostaldeko hainbat herri bezala, zaila da ez maitemintzea, ozeano aldera duen ikuspegi eder horrekin.

Itsasoari begira dagoen talaia modukoa da herria, hainbat txokotatik itsasorantz dituen ikuspegi ezin ederragoak baititu. Alde zaharrean ere baditu horrelako behatoki berezi batzuk, eta aipatzekoak dira, adibidez: Elkanori egindako monumentua, Bistaonako behatokia, edo Katrapona enparantza, itsasoko harresien gainean.

Getariako arratoia da San Anton mendiaren izen ezagunagoa. Parke natural interesgarria dago bertan: landaredia eta zuhaitz mota ugari, bertakoak zein exotikoak. XV. mendera arte uhartea izan zen San Anton mendia, baina beso edo istmo artifizial baten bitartez herriari lotu zioten. Gorako bidean, itsasargia ikusiko dugu lehenbizi; hortik ematen zuten baleen etorreraren edo ekaitzen berri. Itsasargia utzi, eta gorako bideari jarraituz, mendiko punturik altuenera helduko gara, eta hantxe aurkituko dugu Katxapo izeneko eraikuntza txikia. Handik euskal kostaldearen ikuspegi zoragarria eskaintzen dio San Anton mendiak bisitariari.

info+:

Getariako turismo bulegoa

Aldamar parkea 2

www.getariaturismo.eus

Telefonoa: (+34) 943 14 09 57


e-mail: info@getariaturismo.eus

Katrapona pentsioa, itsasoari begira

Getariako arrantza-portuaren pare-parean dugu Katrapona ostaturia. Aurrez aurre itsasoa: udan bare, neguan olatu indartsuak... Naturaz gozatzeko ikuspegi paregabea, herriko alde zaharrean bertan. Logela guztiak kanpoaldera daude, handiak, argitsuak, ikuspegi ezin hobeakaz; komun pribatua dute, eta gehienek, balkoi txikia: portu, hondartza ikusten dira. Familientzako gela handiagok bat dago, eta ohe osagarriak jartzeko aukera ere bai.

Erreserbarako:

Katrapona plaza, 4
20808 Getaria • Gipuzkoa
+34 943 140 409
+ 34 635 732 439
info@katrapona.com





Saiaz Getaria Hotela



XV. mendeko dorretxe gotikoa da Saiaz-Getaria hotela; Gaztetape hondartzaren gain-gainean, malkarraren ertzean.

Dorretxearen harrizko hormen artean, tximiniak, antigoaleko piezen bilduma zaindua eta hotel garaikide baten erosotasun guztiak aurkituko dituzte bisitariak. Itsasgainen etxaurreak ikuspegi itzela eskaintzen du; gainera, itsasaldeko geletatik, egongelatik, kafetegitik eta terrazatik ere goza daitezke ikuspegi eder horiek. «Itsasoaren laztan lasaiek edo taupada harroek opa izango dizute egun ona euskal kostaldeko herri honen hirigune historikoan», Mikel Saiaz-Getaria Hoteleko kudeatzaileak azaldu duen legez. Izan ere, Getariako bizitzaz eta eraikinaren historiaz maitemindurik, bestelako erabilpen bat ematea erabaki zuen bilbotarrak, gurasoek 1982tik apurka-apurka eta zaletasunez berriztutako eraikinari. Orain dela 10 urte familia-egitasmoa zena xarma handiko hotel bihurtu da, eta gaur egun, bisitariak eraikinez eta inguruaren edertasunaz zoratzeko gogotsu agertzen da egunero.

Horrez gainera, ibilbide ahaztezinak diseinatzeko lagunduko diote Saiaz Getariako lagunek bisitariari. Inguruak bisitatzeko kokagune ezin hobean dago Getaria: Uribe Kostatik ordubete ingurura dago; handik Donostia, 25 minutura; Biarritz, 55era...

Hotelak honako zerbitzuak eskaintzen ditu:

- Doako wifi-sarea, 24 orduko harrera.
- Urritasunak dituzten entzako egokitutako igogailua.
- Kafetegia / taberna. Buffet erako gosaria (logelan hartzeko aukera).
- Bilera-gela, proiektzio ekipamenduaz hornitua.
- Helduentzako eta haurrentzako ohe gehigarriak eta sehaskak.
- Maskotentzako ohetxoak.

Roke Deuna 25, 20808 Getaria • Tel.: 943 140 143
info@saiazgetaria.com • www.saiazgetaria.com

Getaria, formak eta zaporeak

Martxoko aste-akabuetan, herriko altxorak ezagutzeko egundoko aukera!



Aisialdi-plan berezia aurkezten digu Balenciaga museoak martxo-ko asteburuetarako: Maisor kontserba-lantegira bisita egin, ostean Balentziaga museo-ko erakusketa bisitatu, eta, azkenik, Gaintza txakolindegiko upeltegian barruak bete. Bisitei amaiera ezin hobea emateko asmoz, bertako produktuen dastaketa izango dute bisitariak Getariako Gaintza txakolindegian bertan.

«Getaria, formak eta zaporeak» izeneko esperientzia horren ordutegia 11:00etatik 14:00etara izango da, eta 15€ko prezioa izango du pertsonako. Horretaz gozatu gura dutenek izena eman beharko dute aurretik. Telefonoz 943 00 88 40 zenbakian, edo info@crislobalbalenciagamuseoa.com posta elektronikoan, leku kopuruak mugatuak dira-eta.



Cristobal Balenciaga Museoa

Momentuko erakusketa:
Balenciaga. Luxuaren esperientzia

Aldamar parkea, 6
 20808 Getaria, Gipuzkoa
 Tel.: 943 00 88 40
info@crislobalbalenciagamuseoa.com
www.crislobalbalenciagamuseoa.com

Arraina Boga-boga jatetxean

Portuko kaian bertan dago Boga-Boga jatetxea, sasoiko arrain freskoak eta itsaskiak era ezinhobean dastatzeko aukera ederra. Euskal sukaldaritzaren tradizioa lantzen dute, egile-sukaldaritzaren ikutuakaz. Asteburuko menu bereziak eta karta eskaintzen dituzte; espezialitateren bat jan nahi izatekotan (bisigua, esaterako) aurretiko erreserba egin behar dago. Jantoki intimoa (8 mahai) eta bista lilugarriak dituen “mahaiaz gozatzeko” jatetxea da Boga-Boga.

Erreserbarako:

Aldamar Kalea, 20
 20808 Getaria • Gipuzkoa
 +34 943 140 100
bogabogajatetxea@gmail.com



Familiagaz, lagunakaz, bikotekideagaz edo bakarrik

Stock Euskadi, BECen!

200 saltoki inguruk

%80 arteko beherapenak eskainiko dituzte hamaika produktutan.

Martxoaren 4tik 6ra, hiru egunez, Euskadiko outletik handiena zabalduko dute Barakaldoko erakusketa-egunean. Outletetan, «estatu osoko garrantzitsuenetakoa» dela jakinarazi dute antolatzaileek, azalerari begira eta askotariko eskaintzagatik.

Kontsumitzaileek prezio paregabeak topatuko dituzte hamaika arlotako artikuluetan, berbarako: moda eta osagaiak, adin guztietarako; edertasuna eta osasuna; kirol-jantziak; sukaldarako tresneria eta etxeko gauzak; elektronika; eta aisiagaz lotutako sektoreak. Beherapenak jatorrizko prezioen %80oraino hel daitezke, eta ia



©STOCK EUSKADI

berrehun saltokik parte hartuko dute. Aurton hamargarren ediziora heldu izana ospatzeko, euskal garagardo artisauak eta hainbat sukaldaritza-estilotan espezializatutako gastronomia-furgonetetako janaria dastatzeko aukera izango dute bisitariek. Orain dela urte

bi hasitako bide solidarioagaz ere jarraituko dute: oraingoan, Caritas Bizkaia izango da 3.000 euro jasoko dituen GKEa. Halaber, Caritasek mahai bat izango du BECeko atarian, bazterketaren aurka Bizkaian egiten duen jardueraren berri emateko jende guztiari.

Martxoak 4, 5 eta 6

Ordutegia:

11:00etatik 21:00etara arte.

Sarrera 2€

14 urtetik beherakoak dohainik sartuko ahal izango dira.

Zerbitzuak:

- Adin guztiei egokitutako ludoteka (puzgarriak txikieneztat, bideo-jokoak nagusiagoentzat), gurasoek prezio onenak bilatzen dituzten bitartean, mota guztietako artikuluetan.
- Sarrera behin erosiz gero, Azokaren hiru egunetan sartzeko aukera izango dute bisitariek.
- Euskal garagardo artisauak egongo dira aukeran, eta gastronomia-furgonetak: hainbat sukaldaritza-estilotan espezializatutakoak, euren produktuak dastatzeko aukera eskainiz. Hori guztia, 2.500 m2ko eremuan.

Sariak

Bertaratutakoek esku-diruko zozketetan parte hartzeko aukera izango dute. Guztira, 6.000 euro zozkatuko dira, 200€-ko sarietan banatuta; bost zozketa egongo dira egunean.

STOCK EUSKADI

X URTEURRENA

EUSKADIKO OUTLETIK HANDIENA

Garagardo azoka & Food Trucks



6.000€ SARIETAN 400€ BI ORDURO BERTAN EGONDA

Sarrera 2€

3 egunetarako balio du

Martxoak 4, 5 eta 6

11:00etatik 21:00 arte

MODA
ELIKAGAIK
ETXEBIZITZA
KIROLA
LURRINAK
UMEA
APAINGARRIAK
ETA ASKOZ GEHIAGO!



Informazio gehiago:



www.stockeuskadi.com



info@stockeuskadi.com

Jarraiguazu:



facebook.com/stockeuskadi



[@stockeuskadi](https://twitter.com/stockeuskadi)



Tel. 944 458 222



[@stockeuskadi](https://www.instagram.com/stockeuskadi)

Gastronomia-gida

Gurean, ahozerua donetsi!

Satistegi jatetxea



Algortan, historia luzeko taberna-jatetxea da Satistegi, «ezinbesteko bat». Astegun zein jaiegun, egunero zabalik dago Satistegi 08:00etatik 00:00etara arte. Hala, goizean goiz, armosu gozoa edo gazia har dezakezu bertan, «Abrara begira», ikuspegi ederragaz gozatuz. Hamaiketako eta askari arinerako, barra gaina bete pintxo izaten du, «punta-puntako mokaduez beteta». Bazkaritara joateko ere, aukera aparta da, eskaintza zabala dauka-eta: eguneko menua (astelehe-

netik barikura), «etxeko sukaldaritza, eta amamak egindako postreak» (tradizionalak); oster, karta ere badute, «arrain eta haragietan adituak gara: haragien artean, idi-txuletoia aipatzekoa da! Eta bereziki adituak arrainetan, eta sasoiko itsaskiak plantxan egiten». Halaber, eurakaz aurretik adostuz gero, menu bereziak ere prestatzen dituzte. Gozatzekoa da terraza ere; apirilean ipintzen dute, eta uda osoan egoten da. Aste Santuan, gurean eta gureaz gozatzeko aukera itzela! ◀

Unai jatetxea



Egunotan bete ditu urte bi Unai jatetxeak. «Etxeko janaria» dastatzeko aukera eskaintzen du Algorta erdi-erdian, astegunetan, 12,50 euroan; menu bereziak eta karta ere badauzka. Harro diote bertoko hornitzaileak eskuz esku lan egiten ahalgintzen direla, eta goraiatzekoak direla olagarroa parrilan patata bioleta eta pikillo ali-oliagaz, etxeko muskui-luak edo tabernako *micuit* pikua marmeladagaz. Modu askotara egindako txirlak ere, aipagarriak! Haragia eta

arraina dira euren espezialitateak: bakailaoa bizkaitar erara edo pil-pilean, txipiroiak, legatza ondarrutar erara, bakailao-kokotxak eta sasoiko arrainak parrilan; edo txuletoia, azpizuna eta entrekota parrilan, azpizuna foie gras freskoagaz zein bildots txuletak. Sama freskatzeko Estrella Galicia garagardoa dute: upeltegi berezikoa, eta 1906ko iluna. Aukera ederra Athleticen partidak ikusteko, denak ematen baitituzte! Edo bariku zein zapatuetarako, 01:00a arte zabalik dago-eta! ◀

Ayoberri sagardotegia



Sagardotegi bihurtutako baserria da Ayoberri, Ayo familiak 1994an eutsi zion erronka horri, gaur arte. Urrun joan barik, egundoko ingurunean, Uribe Kostan bertan, astialdirako prestatutako eremua, umeentzako olgeta-gunea, futbol-zelaia, aparkalekua... eta egunero sagardotegiko menua, bertatik bertara! Besteak beste, bakailaoa Ayoberri erara, eta txingarretan erretako txuletoia, gozoaren gozoz ezpainak koipetzeko modukoak! Izan ere, barruko jantokian be-

gi-bistan dagoen egur-labea daukate 2006tik; hori dela eta, artxoak eta txerrikumeak erretzeko zerbitzua ere eskaintzen dute (aldeztatik aurretik eskatuz gero). Aipatutako sagardotegi-menuaz gainera, astegunetan eguneko menua ere ematen dute, eta askotariko karta aste-akabuetan; ardo-karta zabala ez dute falta. Esan barik doa umeentzako menu bereziak badituztela, eta, ezin aipatu barik utzi, indaba-jana osagai den-denakaz ere goza daitekeela, aurrez erreserba eginez gero. ◀

Ekin jatetxea



Pazko Astea zein Aste Santuko egunak aukera politak dira Ekinen jaki-kazolatxo zoragarriak barruratzeko, tripakiak, txerri-hankak, buztana... Zer esanik ez, modu askotarikoan prestatutako arrautzakaz gozatzeko: baserriko arrautzak, Goxua arrautzak, Garatzeko arrautzak, Itsas-mendi arrautzak, Ekin arrautzak, sartenekoak... Jesarraldi luzeagoa egiteko aukeran dituzu eguneko menua (11,50€), «etxeko janari euskalduna, bertoko hornitzaileen kalitatezko eli-

kagaiakaz», edo menu bereziak (asteburukoa, 19€; eta, 27 eurokoa, aurretik adostutakoa); gainera, indaba-jana ere prestatzen dute, osagai denakaz, entsalada, postrea eta edaria barne. Arraina parrilan eta txibiak zein entrekota dira bereziki gozatzekoak. Algortako metro-geltokitik hurbil dago Ekin, 80 pertsonarentzako lekua dauka, edozein ekitaldi ospatzeko egokituta; edonork aloka dezake. Hainbatetan, kontzertuak antolatzen dituzte, eta Athleticen partidak, beti! (astelehenetan itxita). ◀

Portu Zaharra taberna



Helbidea:
Portu Zaharra, 35
48991 Algorta

Telefona:
944 602 033

portuzaharra@
portuzaharra.com

Webgunea:
portuzaharra.com

Portu Zaharra izeneko tradizio handiko taberna da. Antzinako arrantzaleen inguru zoragarri eta pribilegiatua izateaz gainera, historiaren zati bat da, 1884an zabaldu baitzen. Ostaturia izan da handik hona. Tabernak, berriz, 80 urteko ibilbidea dauka, beti ere mokadu eta gutizia gozoak eta askotarikoak eskaintzen. Gaur egun, 60 bat pintxogaz tentatzen ditu sukaldaritza onaren zaleak. Pintxo horietako batzuek tradizio handia

daukate inguruan, eta beste batzuek segurutik etorkizun batean izango dute. Izan ere, horixe da Portu Zaharra tabernaren espezialitatea, pintxo lan- duak prestatzea. Gainera, martxotik aurrera, afariak ere eskaintzen ditu.

Gozagarrien artean, hanburgesa ezberdin bi proposatzen ditu tabernak, eta, horregaz batera, sandwich bi eta ogitarteko bi ere bai. Amaitzeko, ezin aipatu barik utzi, tabernak bista ederrak dituela ilunsentiagaz gozatzeko. ◀

Nikkou sushi-taberna



Helbidea:
San Nikolas plaza-
Andres Cortina
48991 Algorta

Telefona:
944 650 171
nikkou@nikkou.es

Webgunea:
nikkou.es

Nikkou jatetxe japoniarra da, Tomas *sushi*-egileak sortua. Nazioarteko hainbat jatetxe japoniarretan sukaldetburu izan ostean, iaz bere jatetxea zabaltzea erabaki zuen, non eta Algortan, getxoiztarrei Japoniako sukaldaritza ezagutarazteko asmoz. Esperientzia gastronomiko paregabea eta pertsonala eskaintzen du prezio onean. *Sushi*-a gure aurrean zelan egiten duen ikusteko aukera dugu; euskal sukaldaritzaren eragina

duen askotariko karta ere topatuko dugu, eta denetarik probatzeko aukera ematen duten hainbat plater konbinatu ere bai. Berezitasunen artean daude atuneko *tatakia*, Nikkou estiloko *carpaccio*, edo *gyozas*, enpanadilla japoniarrak. Edari-karta zabala ere badute, *sushi*-entzako ardo egokiak eta koktelakaz. Aste osoan zabalik dago, astelehenean izan ezik. Terraza eta etxerako zerbitzua badituzte. ◀

Etxerako eskaerak: 944 301 823

Ugartena jatetxea



Helbidea:
Karitate kalea, 2
48991 Algorta

Telefona:
944 606 429
ugartena@
ugartena.com

Webgunea:
ugartena.com

Ugartena jatetxea euskal tradizio-sukaldaritzagatik eta inguruko produktu freskoakaz lan egiteagatik da ezaguna.

Egunero, Tolosako indabak dira plater nagusia, bere txerrikiakaz. Eguneko menua eskaintzen dute lanegunetan, prezio onean (14 euro). Halere, menu berezia gura duenak ere egunero dauka, 31 euroan. Aste-akabuan, ordea, berezko menua prestatzen dute, 26 euroan, eta txikiak euren gustu-

ko platerak topatuko dituzte haur- menuan (16 euro).

Berezitasunen artean, hainbat haragi eta arrain txingarretan erreak proposatzen dituzte. Tabernari dagokionez, pikatzeko errazio- eta pintxo-eskaintza zabala dute; gainera, aste-akabuetan txokoez eta txibierroez goza daiteke. Bestalde, propio prestatutako vermousetan adituak dira Ugartenan, norberaren gustura egokitzeko hamar aukera baitituzte. ◀

Xurrut Gorliz



Helbidea:
Hormazalanda
enparantza, 2
48630 Gorliz

Telefona:
946 771 389
xurrutgorliz@
hotmail.com

Webgunea:
xurrut.com

Xurrut Gorlizko pizza-taberna ezaguna da; iaz 30. urteurrena ospatu zuen! «Musika zaletasunak definitu eta markatu gaitu hasiera-hasieratik, eta horregatik da ezaguna Xurrut munduan: hainbat kontzertu eta zuzeneko emanaldi antolatu dugulako berton». Herriko zein hasiberri diren musika-taldeak kontzertuak eskaintzeko espazioa da Xurrut; «musikazaleek gurean badute lekua». Musikagaz batera, beste zaletasun bati

erantzuten dio Xurrutek: «gure pizza gozoengatik ere ezagunak gara, 17 motatako pizzak eskaintzen baititugu». Era berean, bertan artisau eran egindako pasta fresko, lasagna eta entsaladak dituzte; pasta-karta astero berritzen dute. 19:00etatik 00:30era da egoten da zabalik, neguan egunetik domekara, eta udan aste osoan. Gainera, etxerako zerbitzua ere badute Gorliz, Plentzia, Barrika eta Lemoizen. ◀

Xurruten jotzeko: Facebook.com/xurrut.gorliz

Egin zaitez
hirukalaguna!

...eta abantaila ugariz goza egizu
afari eta egonaldien zozketak, sarrerak, astekaria zure e-postan...
Urtean, 35 eurotik aurrera. Anima zaitez!

Info.+: 94 491 13 37 edo **hirukakoop@hiruka.eus**

Motagane txakolina



txakoli
mota
gane
txakolina

Helbidea:
Leioa-Unbe
errepidea, 34
48950 Goierrri
Telefona:
944 670 007
Webgunea:
txakolimotagane.com
Astelehenetan itxita

Bizkaiko txakolina maite dutenentzat egundoko lekua izateaz gainera, Motagane aukera ezin hobeak eskaintzen ditu, natur ingurune eta bista ederrakaz: Akarlanda parkean, hain zuzen ere. Eguneko menuak zein bereziak eskaintzen dituzte bertan, sasoiko produktuakaz eginda. Azaltzen dutenez, Goierrriko ortuari eta haragiak erabiltzen dituzte bertan, hornitzaileei zuzenean erositakoak. Halaber, taldeentzako menu bereziak es-

kaintzen dituzte, aurretiko erreserba eginez adostuta; euren espezialitateetako bat indaba-jana da. Edari-kartari dagokionez, 60 motatako txakolinak eskaintzen dituzte kartan; barran, berriaz, 13 mota: gorriak, beltzak, zuriak... Guztira, hiru terraza hartzen ditu Motagane, bista hobezinak dituztenak eta eguzkitsuak, Aste Santuko egunetan ederto egoteko... Ospakizunak modu berezian antolatzen dituzte, berbarako bataioak, jaunartzeak eta ezkontzak. ◀

Txiberri edan-tokia



TXIBERRI
EDANTOKIA

Helbidea:
Aita Gotzon, 4
48610 Urduliz
Telefona:
946 760 715

Urdulizen 1934an sortutako eta herrian errotutako edan-tokia dugu Txiberri, udalerriko giroari lotutakoa. Pintxoak beteriko barra izan ohi dute egunero, eta mota askotariko ogitartekoak ere eskaintzen dituzte bertan: era askotako tortilla frantsesak, oilaskodunak, begetalak zein solomo eta piperrakaz. Arduradunek azaltzen dutenez, herri-giro euskalduna nabaritzen da Txiberrin, baita kirolzaletasuna ere. Athleticen parti-

da guztiak eskaintzen dituzte, «bi metroko pantaila handian», baita eskupilota zein errugbi partidak eta autoen lasterketak ere. Halaber, bertaratzen diren bezeroentzako frontoia eskaintzen du tabernak, aurretik erreserba eginez gero. Horrez gainera, bertoko garagardo artisauen aldeko apustua egiten du Txiberrik, berbarako, Urdulizko Etxeandia eta Bilboko La Salve garagardoak. Era berean, Bizkaiko txakolina ere dastatu daiteke bertan. ◀

Gure Etxea



GURE
ETXEA
taberna

Helbidea:
Aurrezki Kutxa
kalea, 14 48930 -
Itzubaltzeta/Romo
Telefona:
944 636 880
Facebook:
gureetxea.taberna
Dom./ Astl. itxita

Etxean legez sentitu gura dutenek Gure Etxea tabernan dute aukera itzela. Itzubaltzeta/Romoko lokal horrek hala sentiarazi gura ditu bisitariak, giro euskaldun eta hurbilekoan. Horretarako, kalitatea eta gertuko produktuak eskaintzen dituzte bertan. Kartan, ogitartekoak eta hanburgesak dituzte, elaborazio handikoak gainera. Ostera, arrain eta haragi fresko-freskoak eta kalitate hobezinekoak ere eskaintzen dituzte; espezialitateen

artean, bakailaoa, ganbak plantxan, Bermeoko «Alakran» atuna, sasoiko antxoak, Abrako txipiroiak, txuleta, azpizuna, entrekota, buztana eta masaila dituzte kartan, eguerdian zein gauean. Horiek denak terrazan, tabernan bertan zein 6 pertsonarentzako txokoan goza daitezke, azken horretan aurretiko erreserba eginez. Halaber, pintxo eta errazio ugari eskaini eta Athleticen partida guzti-guztiak ematen dituzte, zale handiak baitira. ◀

PARAPENTE BIZKAIA

Parapente Bizkaia

13 urte baino gehiagoko esperientzia hegaldi profesionaletan

Bi lagunentzako hegaldiak + bideoa
Parapente ikastaroak
Hegaldia oparitu eta aho bete hortz utz ezazu!

SOPELAN gaude!
www.parapentebizkaia.com
info@parapentebizkaia.com - tel. 688 625 460

La terraza del URIBE

URIBE KOSTA
hotela eta jateketa

Sukaldaritza berritzailea imajinatzen ez duzun espazioan!

Casa de marinos

C/ Erribera, 13 - Plentzia - Vizcaya / uribekosta@casasdemarinos.es

f CasaDeMarinosUribeKosta
@ElHotelito
946774478

IZAKINEN AMAIERAKU

MERKATUA

MERCADO

DE SALDOS

MARTZOA 10-11-12
MARZO



Getxo
bizi ezazu



Parte-hartzaileak / participantes
www.getxo.eus/getxolan



Koko, dragoi txikia
filma, aste-akabuan

Martxoaren 5ean eta 6an, euskarazko zinemaz gozatzeko aukera egongo da Kultur Leioako entzungelari; *Koko, dragoi txikia* izenburuko animazio-filma eskainiko dute, 17:30etik aurrera. Sarre-rak 3,50 euroan salgai daude. ◀

Asterix: jainkoaren egoitza, Areetan

Domeka honetan, martxoak 6, *Asterix: jainkoen egoitza* filmagaz gozatzeko au-keraz edukiko dute neska-mutilek. Saioa 17:00etan izango da, Areetako Andres Isasi musika-eskolan; sarre-rak 2,10 eu-roan egongo dira salgai. ◀

Pailazoak ikuskizuna,
Pinpoil taldeagaz

Pinpoil aisialdi-elkarteak *Pailazoak* ize-neko haur-ikuskizuna eskainiko du do-me-ka honetan, martxoak 6, Berango Antzokian. Emanaldia euskaraz izango da; sarrera, doan. Lola eta Mimi paila-zoak dira protagonistak. ◀

2016/03/07

10:00 *Arantzale egun* batez txangoa: Santurtzi Itsasoa museoa eta arrantzarako egurrezko azken ontzi tradizionala bisitatzeko aukera. Izen-ematea: Erandioko Emakumeen Elkarte-ko egoitzan (San Agustin plaza, 1. Altxaga), 18:00etatik 20:00etara. Doan.

18:00 Alberto Vargas ipuin-kontalaria, Goñi Portal kultur etxean. 6 urtetik gorakoentzat. Euskaraz. Sarrera, doan.

2016/03/07

10:00 Mendi-martxa eta bisita gidatua Gorlizen, turismo-bulegotik abiatuta. Izen-ematea: 946 775 031 (martxoaren 4ra arte). Antolatzailea: Araldi emakumeen elkarte.

18:30 *Emakumeen begiradak* erakusketaren inaugurazioa, Goñi Portal kultur etxean. *Los mujeres en el arte* berbaldia emango du Miriam Regulon Artearen historiaren irakasleak; eta luncha egongo da. Sarrera, doan.

2016/03/08

20:00 *Emakumeon aurkako eraso zein indarkeriarik ez* goiburuko kontzentrazioa, Ontziola plazan. 26 elkarte eta eragilek deitu dute mobilizazioa.

2016/03/09

09:00 Bisita-gidatua, Bilboko udaletxera. Plentziako metro-geltokian jarri dute hitzordua. Izen-ematea: 946 775 031 (martxoaren 4ra arte). Antolatzailea: Araldi emakumeen elkarte.

2016/03/10

17:30 *Al encuentro de Mr Banks* zinema-foruma eta merienda, Goñi Portal kultur etxean. Sarrera, doan. Antolatzailea: Araldi emakumeen elkarte.

2016/03/13

Mankomunitate mailako ekitaldia

10:00 VII. Mendi Martxa, Plentziako hondartzatik abiatuta. Izen-ematea, 09:30ean.

12:30 Batukada eta kirol-erakusketa, Plentziako hondartzan.

13:00 Martxoaren 8ko adierazpena irakurtzea, Plentziako hondartzan.

Urduliz

2016/03/07

19:00 *Big eyes* filmaren proiektzioa eta foruma, kultur etxean. Sarrera, doan.

Barrika

2016/03/06

11:00 Emakumezkoen IX. Piragua Lasterketa Herrikoia, Butroeko Itsasadarrean. Doako Izen-ematea: 605 717 152. Antolatzailea: Barrika Piragua Taldea.

Lemoiz

2016/03/08

12:00 Adierazpena irakurtzea, eta kontzentrazioa, udaletxean.

2016/03/07

10:00 *Arantzale egun* batez txangoa: Santurtzi Itsasoa museoa eta arrantzarako egurrezko azken ontzi tradizionala bisitatzeko aukera. Izen-ematea: Erandioko Emakumeen Elkarte-ko egoitzan (San Agustin plaza, 1. Altxaga), 18:00etatik 20:00etara. Doan.

18:00 *¿Que es el empoderamiento? ¿Como nos empoderamos las mujeres?* berbaldia, Erandioko Emakumeen Elkartearen egoitzan. Miriam Herbonegaz. Sarrera, doan.

2016/03/08

12:00 Kontzentrazioa, Iailaren 23a plazan. Adierazpena irakurri, eta kalejira egingo dute Altxagan barrena. Antolatzailea: Erandioko Emakumeen Elkarte.

14:30 Bazkaria, Extremadurako Etxean (Getxo kalea, 3. Astrabudua). Izen-ematea: anbulatorio zaharrean, astelehen eta eguenetan, 18:30etik 20:00etara. Antolatzailea: Astrabuduko Emakumeen Elkarte.

2016/03/09

14:30 Bazkaria eta dantzaldia, Altxagako azoka zaharrean. Izen-ematea: Erandioko Emakumeen Elkarte-ko egoitzan, 18:00etatik 20:00etara.

17:00 *La increíble historia de Malala* berbaldia, Josu Murueta kultur etxean. Merche Fidalgogaz. Sarrera, doan. Antolatzailea: Astrabuduko Emakumeen Elkarte.

2016/03/11

18:00 Jaia, Altxagako azoka zaharrean. Antolatzailea: Erandioko Emakumeen Elkarte.

2016/03/13

19:00 *Sin pena ni gloria* antzezlan (Aztia), Josu Murueta kultur etxean. Emakumeak Ezzenan zikloaren barruan. Sarrera: 2 euro.

Sopela

2016/03/03

18:00 *El amor como coartada en la violencia contra las mujeres* berbaldia, Alicia Garciagaz. Itzartu emakumeen elkartearen egoitzan (Landa doktorea, 3-1onja). Doan.

2016/03/05

10:00-14:00 / 16:00-19:00 Autodefentsa ikastaroa, Kurtzio kultur etxean. Informazio gehiago: 946 765 595 (Itzartu).

19:00 *Todas somos compañeras* antzezlan (Itzartu), Kurtzio kultur etxean. Sarrera, doan.

2016/03/06

18:00 *Futbolarik eta printzesak* umeentzako antzezlan, Kurtzio kultur etxean. Euskaraz. Sarrera: 3 euro (umeak) / 5 euro (helduak).

14:00 Bazkaria. Izen-ematea: Andrak emakumeen elkarte (Sabino Arana, 78).

2016/03/07

18:00 Emakunderen eta Andrak elkartearen ibilbidearen gaineko berbaldia, Kurtzio kultur etxean. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.



Martirio 30 años ikuskizuna eskainiko du artistak andaluziarrok. © KULTUR LEIOA

Martirio: musikari eskainitako bizitza

Abeslari andaluziarrak arteagaz daukan konpromisoak bi-zirik eta esna mantendu du bere karrera, 30 urtean. Hori-ek denak disko batean laburbildu ditu; kopia, rock, jazz, bo-lero, tango eta bestelako musika-estiloakaz izandako lehe-nengo harremanak agerian geratzen dira. ◀

Noiz: Martxoak 4, barikua.
Ordua: 21:00
Non: Kultur Leioako entzungela.
Sarrera: 15 euro.

ARGAZKIETAN OINARRITUTAKO
TESTU LABURREN IV. LEHIAKETAREN
ERAKUSKETA

argihizkiak.com

argihizkiak Sopenan

Martxoaren 20ra arte Kurtzio kultur etxean



hiruka

Asteegunetan
11:00-14:00 eta 16:00-20:00
Aste-akabuetan
11:00-14:00 eta 17:00-20:00



Imanol Uria eskualdeko azken txapelkunak (2014) martxoaren 12ko Algortako kanporaketan ekingo dio lehiari. © BIZKAIKO BERTSOZALE ELKARTEA

Saioak

Martxoak 5, zapatua

Lehenengo kanporaketa, Leioan

19:00 Arrate Illaro, Peru de Pedro, Unai Mendiburu eta Xabier Albizu, Ganeko tabernan.

20:00 Peru Vidal, Iñigo Kortazar, Inazio Vidal eta Galder Bilbao *Txapi*, Kurkudi tabernan.

21:00 Beñat Vidal, Aitzol de Castro, Paule Loizaga eta Xabier Sainz de la Maza, Kazun.

Martxoak 12, zapatua

Bigarren kanporaketa, Algortan

19:00 Josu Landeta, Arkaitz Gomez, Joanes Igeregi eta Daniel de Miguel, Villamonten.

20:00 Jone Uria, Unai Larrazabal, Pello Etxebarria eta Peio Arondo, Ekin tabernan.

21:00 Imanol Uria, Ekaitz Larrazabal *Katxo*, Miren Loizaga eta Itxaso Paia, Azebarrin.

Martxoak 19, zapatua

Finalurrekoa eta finala, Plentzian Goizean eta arrastian

Saio nagusia, Danontzat gatzetxean.

info+: www.albe.eus

Txapelaren bila doaz

Uribe Kostako Bertsolari Txapelketa zapatu honetan, martxoak 5, hasiko da Leioan. Denera, 24 bertsolari lehiatuko dira; finala hilaren 19an jokatu dute, Plentzian.

Eskualdeak txapelketa dauka aurten: 24 bertsolari lehiatuko dira martxo osoan, Uribe Kostako txapelaren bila. Hala, Bizkaiko Bertsotzale Elkarateak bultzatutako *Zortzi Puntutan* ekimenagaz bat egingo du ALBE Algortako Bertsolari Eskolak antolatutako sari-
ketak. Kanporaketa biak eta finalurrekoa bertso-poteoaren formatuan

egingo dituzte; lau bertsolariz osatutako hiru saio jokatu dira. Finalari dagokionez, sei bertsolarik osatutako saioa izango da.

Zapatu honetan, martxoak 5, egingo dute lehenengo kanporaketa, Leioan. 19:00etan hasita, Ganeko, Kurkudi eta Kazu taberne hartuko dute saio bana. Martxoaren 12an, ber-
riz, bigarren kanporaketa hartuko

dute Villamonte tabernak, Ekinek eta Azebarri kultur elkarateak. Amaitzeko, Plentzian jokatu dituzte, hilaren 19an, finalurrekoa eta finala; Danontzat gatzetxean egingo dute saio nagusia. Bazkaria ere antolatuko dute.

Zortzi Puntutan ekimenaren helburua da eskualdea girotzea eta bertso-gintzaren oinarria sendotzea. Bizkaiko txapelketara joango ez direnentzat, bestelako plaza bat izango da, eta joango direnentzat, entrenamendu aproposa, antolatzaileen esanetan. Eskualdeak berak hartzen du antolakuntzaren ardura, eta berak erabaki-

tzen du formatua, eskualdearen ezau-
garrietara egokien datorren aukera baliatuz.

Bertsolari gazteak

Uribe Kostako bertsolari gazteek Hego Uribeko taldearen kontra jokatu dute BBK Sariketaren kanporaketa. Martitzenean, martxoak 8, izango da saioa, Zallako Zine Antzokian, 10:00etan. Hala, saio horretan aurrera egiten duen multzoak Busturialdeko taldea edukiko du aurrez aurre martxoaren 18ko finalean; 19:00etatik aurrera, Bilboko Kafe Antzokian. ◀

Zortzi emakumezkoren artelanak, Kultur Leioan

Martxoaren 4tik apirilaren 3ra bitartean, *Topaketak* izenburuko erakusketa egongo da ikusgai Kultur Leioan. Testuinguru garaikidearen barruan, zortzi emakume-
ren arteko adierazpen-gunea sortzeko ideiaz sortu zen ekimena, Ines Bermejo erakusketaren komisario itzualt-
zetarrak dioenez. Euren lan artistikoa Uribe Kostan garatzen duten emakumeak dira *Topaketak*-eko protagonistak: Eider Agüero, Cristina Ezquer-
ra, Idoia Garai, Eugenia Guridi, Andrea Gutman, Leire Muñoz, Jone Saitua eta Laurita Siles. Diziplina askotako ikus-
pegitik sortutako lan-sorta batzen du talde-erakusketa horrek; hala, eus-



Laurita Silesen *Marta Silex* irudia.

karri ezberdinekin osatzen dute, artista bakoitzak bere mundua adieraz dezan bere modura: pintura, ilustrazioa, collagea, bideoa, instalazioa, eskultu-
ra-objektuak, mugimendua edo argaz-
kilaritzaren bitartez. ◀

Aurtengo Santiago jaien pregoilaria izateko proposamenak aurkez ditzakete gorliztarrek

Apirilaren 15era arte aukera egon-
go da Gorlizen aurtengo Santiago jaien pregoilaria izateko proposamenak aurkezteko. Kultur etxean eta Sertutxenan postontzi bana ipini dute horretarako. Behin aurkezteko epea amaituta, proposamenak aztertuko ditu jai-batzordeak. Hala, udarako argitaratu ohi den liburuxkan ezagutara-
ziko dute Santiago jaien pregoilaria nor izango den. Aukeratutako lagunak pregoia irakurri beharko du fes-
tei hasiera emateko uztailaren 23an, udaletxeko balkoian dagoela. Horren ostean, jaitsieran eta hainbat ekitaldi, sari-banaketa eta aurkezpenetan parte hartu beharko du. ◀

Sopelan izango du akabera laugarren ArgIHizkiak sariketan oinarritutako erakusketak

Eskualdeko herri gehienak bisitatu ostean, Sopelan amaituko du bere ibilbidea ArgIHizkiak literatura-lehiaketaren laugarren edizioaren erakusketak. Aurtengo sariketa antolatu eta burutu artean behintzat, Uribe Kostako edo bertan bizi diren 10 argazkilariren irudi bana eta horietan oinarritutako euskarazko 20 testu labur onenak ikusi ahal izango dira, martxoaren 20ra bitartean, Kurtzio kultur etxean. Erakusketa bisitatzeko ordu-
tegia honakoa izango da: astegune-
tan 11:00etatik 14:00etara, eta 16:00eta-
tik 20:00etara; eta aste-akabuetan, 11:00etatik 14:00etara, eta 17:00etatik 20:00etara. ◀



Adimen-garapena

GORKA
AURRE URTZAA
Irakaslea

Buru barruko amaraunak eta gure jardunak

Egia esan, adimena nola-koa, izaera halakoa. Giza-kiaren adimena amaraunez jantzita dago. Euren menpe gara eta ez dugu bertatik eroso ateratzeko aukera handiegirik izaten. Sentimenduak, emozioak, ohiturak, sinesmenak eta aurreiritziak ere talde horretan bil ditzakegu. Gure gogoetak amaraun horietan korapilatzen dira. Batzuetan, irtenbide urriz. Gehienetan, bertan kateatu eta eroriz.

Erabat errotuta ditugun ohitura desegokiez jabetuz, eurak aldatzeko borondatea eta beharrian gorria ikusten ditugun arren, aipatu amaraunak eta ohituren indarrak ez digute barne-asmo hori garatzen uzten. Ohituren indar erraldoia edota gizakiaren borondate ahularen ezina. Edo biak. Sakon aztertuz gero... nahi izaten ez delako. Ahaleginaren ezinean baino egonean hobe. Erosotasuna nahia-go, hobera egiteko bide bihurriak ibili baino.

Gure borondate kontzientea irudimenarekin eta gure azpikontzientearen borondatearekin gatazka bizian dabil. Batzuetan txarra eginez jarduteko tentazio gaiztoak ere sakon-sakone-tik azaltzen dira. Zenbat eta gure ohitura desegoki edota okerrak zuzentzen gehiago aritu, are eta amaraunari lotuago. Eltxoen antzera.

Adimenaren zorrozatasuna dugu arrakastarako zutabe nagusienetako bat, baina zorroztasunez gogoeta egiteko arrazoibidea erabili behar da. Arrazoibidearen edota oldozmen-zorroztasunari logika esaten diogu. Zentzunean oinarritutako ekintza arrazoibidea baino zerbait gehiagoren emaitza da. Zorritzarez, ikustea egokitzen zaizkigunak ikusita, zentzun, arrazoibide eta adimen urri dagoelakoan nago inguruetan. Jarduera lotsagarri asko gauza onerako. ◀

Zinema-emanaldien bidez, sexu-aniztasuna bultzatuz

EHuko LGTB Ligak eman dio Gazteen Saria *Pink Boy* film labur estatubatuarrari. © PINK BOY FILM

Zinegoak Hedapena zikloak proiektzioak eskainiko ditu Leioan, Sopelan eta Getxon. Horrez gainera, 5-6 urteko umeentzako ipuina kontatuko dute Areetan.

Gaylesbotrans Zinema Festivalak otsailaren 29an eskaini zuen aurtengo azken saioa, Bilbon. Hala ere, sexu-aniztasunaren aldeko zinemaldia ez da amaitu; izan ere, antolatzaileek festivalerako film luze, dokumental eta film laburren hautaketa egin, eta 30 bat herritara zabalduko dute martxoan. Berbarako, Uribe Kosta eskualdean,

Leioan (eguztenean izan zen lehenengo), Sopelan eta Getxon egongo dira emanaldiak.

«Helburua da ahalik eta leku gehienetara zabaltzea afektu aniztasunaren gaineko hausnarketa; ez bakarrik herri-giroko LGTB komunitateari erreferentziazko kultura eskaintzeko, baizik eta jendarte osoa sentsibilizatzeko ekintzak prestatzeko asmoz ere», azal-

Ekitaldiak

Leioa

Martxoak 3 eta 10

20:00 Kultur Leioako entzungelan. Gonbidapena egunean eskatu beharra dago.

Sopela

Martxoak 3 eta 4

19:30 Kurtzio kultur etxean. Sarrera, doan.

Getxo

Martxoak 16, eguztena

18:00 *Titiritesa* ipuin-kontaketa, Areetako Kukupraka ludotekan. 5-6 urteko umeentzat (bazkideak).

Martxoak 20, domeka

18:00 Nerabeentzako film laburren zikloa, Algortako Gauegun gaztelekuan. 11-17 urteko gazteentzat. Sarrera, doan.

Martxoak 21, astelehena

20:00 Film laburren sorta, Algortako kultur etxean. Sarrera, doan.

du du Pau Guillen Zinegoak jaialdiko zuzendariak.

Lanen hautaketan, «publiko guztia-arentzat izan daitezkeen» pelikulak aintzat hartu dituzte; «film hurbilak», Guillenek dioenez. Berbarako, siriar-amerikar iraultzaile baten gaineko *The Amina Profile* eta *En la gama de los grises* txiletarra, Sebastian Latino Sarraren irabazlea egongo dira ikusgai. Film laburrei dagokienez, Kepa Errastiren *Aitona Mantagorria*, Mattin Gari-kanoren *Lo que nos une* edo Iker Azkoitiaren *Semeak* aukeratu dituzte. ◀

info+: zinegoak.com

Book trailerrak egiten erakutsiko dute Algortan

Abian da Getxoko Book Trailer txapelketaren bigarren edizioa. Lehiaketa hori gazteen artean irakurzaletasuna sustatzeko helburu-gaz ipini dute martxan, 12 eta 18 urte arteko neska-mutilei zuzenduta. Horretarako, aukeran ematen diren liburu-erakunde bat irakurri eta horren trailerra egin beharko dute parte hartu gura dutenek. Lanak apirilaren 15a baino lehenago entregatu beharra dago. Hain zuzen ere, book trailerrak zelan egiten diren erakusteko tailerrak emango ditu Kalabazan Kultur Ekimenak elkarteak, doan. Bakoitzak gura duen eguna aukeratu ahal izango du; aurretik izena eman beharra dago. Ikastaroak, Gaue-

gun gaztelekuan egingo dituzte, Algortako Urgull kalean. ◀

Tailerrak

Noiz

- **Martxoak 11**, barikua (17:30-19:30)
- **Martxoak 12**, zapatua (11:00-13:00)
- **Martxoak 18**, barikua (17:30-19:30)
- **Martxoak 19**, zapatua (11:00-13:00)

Non

Gauegun gaztelekua (Urgull, z.g. Algorta)

Izen-ematea

sardadilakalabazan@gmail.com

info+: www.kalabazan.com

Marta Perez Elosua argazkilariaren erakusketa, Bilboko foru-jauregian

Apirilaren 15era arte, Marta Perez Elosua argazkilariaren *Oihala* artean erakusketa Foru Liburutegiko Areto Nagusian (2. solairuan) egongo da ikusgai, Bilbon. Portugaletako argazkilariak Euskal Herriko hamabi bat diseinatzaile gaztek egindako diseinu ikusgarriak jasotzen ditu esposizioan, baita diseinatzaile horien jatorria eta erreferentziazko lekuak ere (Bilbo, Gernika, Leioa, Laguardia, Omarko Basoa...). Jon Mikeo, Eder Aurre, Paul Txertudi, Antxia anaiak, Nerea Sanchez, Peio Duran, Maria Blanco, Miriam Ruiz, Janire Olano eta Maria Garcia dira diseinatzaile gazte horietako batzuk. ◀

Sabin Merino Zuloaga Athleticen aurrelari urduliztarrak pasa den udan irabazi zuen postua lehoien artean. Kontratu berriagaz eta Marsellari sartutako golagaz, argi lotu da etorkizun oparoa baino orainaldi bikaina duela. Merinok Lezaman hartu gaitu entrenamendu baten ostean, eta hasierako garaietatik gaur egunerako ibilaldiaren berri eman digu.

«Athleticen egotea niretzat gauza handia da»

IÑIGO FERNANDEZ DE MARTIKORENA

Laneko zein aldea gurago duzu? Futboleko jokatzeko ala elkarriketarako-eta egitea?

Nire lan gehiena futboleko jokatzeko da. Elkarriketarako pixka bat kostatzen zitzaizkidan hasieran, baina apurka hobeto egiten nabil.

Zer moduz daroatzazu gaur egun?

Oraindik pixka bat kostatzen zaizkit, baina hasieran baino askoz hobeto.

Campus propioa daukazu daborduko Urdulizen. Zelan sortu zen hori?

Urdulizko taldeko presidentea eta hainbat jende ondo ezagutzen ditut; lagunak dira. Euren ideia hori proposatu zidaten; ni ados nengoen, eta aurrera joan zen.

Harro egoteko modukoa da, ezta?

Bai, horri buruz orain dela urte bi galdetu izatekotan, ez nuen sekula horrelakorik aurreikusiko. Baina horrela ateratzen da. Azkenean, alde batetik ondo ibiliz gero, beste aldetik ere hobeto joaten da.

Gabonetako campusa egin zenuten, eta orain Aste Santukoa ere izango duzue.

Bai, Aste Santuan berriro izango dugu. Datak une honetan ez dakizkit ondo, baina Urdulizko futbol-taldekoek esan didatenagatik, Aste Santukora jende gehiago etorriko da. Niri asko gustatzen zait umeak egotea; entrenatzailea naiz, Urdulizen gainera;

kimuak prestatzen ditut, eta oso gustura nabil, haurrak lan egitea oso polita baita.

Entrenatzaile gisa zeri ematen diozu garrantzi handiagoa?

Oso gazteak direnez, gehien lantzen duguna da euren nortasuna izatea. Jokoan beren kabuz gauzak egiten ahalegintzea, gu beti euren gainean egon barik. Gehienbat horretan gabiltza. Momentuz, kostatzen zaigu, baina pixkanaka hobetzen doaz.

“**Amak esaten zidan txikitatik, artean urte bigaz ere, pilotari eman eta eman nenbilela. Beti gustatu zait baloia**”

Zelan sartu zinen futboleko?

Ander Deuna ikastolan hasi nintzen futboleko, sei edo zazpi urte nituela. Bertan hiru urte egon eta gero, Danok Bat-era joan nintzen, urtebete bakarrik, eta Lezamara sartu nintzen. Hiru urte egon nintzen, eta ondoren, Danok Bat-era itzuli nintzen, Lezamatik kanpora bota nindutelako, kar, kar, kar. Bertan, talde gaztean egon nintzen. Ostean, Baskoniara buelta-

tu, Bilbao Athleticera, eta orain, lehenengo taldean.

Zergatik erabaki zenuten futbola praktikatzeko?

Egia esanda, ez dakit. Amak esaten zidan txikitatik, artean urte bigaz ere, pilotari eman eta eman nenbilela. Beti gustatu zait baloia hanketan izatea, eta horregatik gehienbat. Bestalde, anaia nagusia daukat, eta bera futboleko hasi zen... Etxean futbola ikusten nuenean, asko gustatzen zitzaidan.

Zeintzuk ziren zure orduko idoloak?

Ni futbola ikusten hasi nintzenean, Joseba Etxeberria, Santi Ezquerro eta hainbat jokalarik nituen gus-tuko.

Danok Bat eta inguruko taldeez aparte, Ameriketako egon zinen. Zelan bizi zenuten esperientzia hura?

Urtebete osoa egon nintzen, ikasketak egiten. Erabaki hori hartu genuen nire anaia ere bertara joan zelako urte bi lehenago; esperientzia oso ona izan zen berarentzat, eta niretzat ere horrela izango zela aurreikusitu genuen.

Aurrerago etorritik, Bilbao Athleticen zeundenean, beste jokalarik batzuk zu baino arinago igo ziren lehenengo taldera, Ager Aketxe esaterako. Zer sentitzen da ikustean lankide eta adiskideak gorantz doazela eta zu leku berean mantentzen zarela?

Bakoitzak bere ibilbidea propioa dauka. Eta agian haiek eta ni neu ezaugarri ezberdinak dituzten jokalariek



loia ondo ipintzen badiot, berak on bilakatzen nau horrelakoetan.

Iñaki Williamsen lesioak zuk ardura gehiago hartzea eragingo du?

Ez dakit. Jende asko gaude taldean. Ni ez banaiz, beste batek hartuko du ardura hori. Aukera ezberdinak ditu entrenatzaileak, eta ikusiko dugu. Jokatzeko badut, ahal dudana guztian laguntzea espero dut, eta jokatzeko ez badut, berdina, taldeari beti lagundu behar baitzaio.

Orain jokatzeko zabilatzat aurtengo Europako Ligatik harago, uste duzu datorren urtean ere Txapeldunen Ligan edo Europako Ligan sailkatzeko helburuak hor jarraitzen duela?

Bai. Gure helburua ahal ditugun puntu gehienak lortzea da, eta hori egiten badugu, seguru aski goian egongo gara. Hala, helburuen parte bat bada Europarako sailkatzea, datorren urterako.

Zu European estreinatu zinen Athletic egaz, Bakun. Berezia izan zen partida hura?

Bai, Bakun jokatu nuen lehenengo partida, baina orduan ez nuen espero ere egiten. Dena oso azkar gertatu zen. Gainera, lehenengo aldaketa izan nintzen partidan, eta une horren aurretik ez nuen horrelakorik sumatzerik.

Zergatik aukeratu zenuen 25. zenbakia?

Ia ez zegoelako besterik libre, kar, kar, kar. 12.a edo 25.a baino ez ziren geratzen, eta 25.a hartu nuen.

Zelangoak izan dira kontratu berrirako negoziatioak eta?

Denboraldiaren hasieran, lehenengo kontaktuak izan genituen, eta alde batera utzi genuen, futboleko zentratzeko, garai hartan jokatzeko garrantzitsua zelako, baina aurrera joan da dena, eta orain dela aste batzuk erabaki genuen unea bazela, eta aurrera eroan genuen.

Pozik zaude hitzarmenagaz?

Oso pozik! Azkenean hemen egotea, Athleticen, hemen jokalaria batentzat gauza handiena da. Niretzat, behintzat, horrela da.

Emakumezkoen lehenengo taldeak liga irabazteko, gabarra atera beharko lukete?

Erabaki hori goikoek hartu behar dute. Aterako balute, eurenatik oso pozik egongo nintzateke. Gainera, denboraldi bikaina egiten dabilta, eta espero dugu horrela jarraitzea.

Baloiri lehenengo ostikadak ematen dabiltzan neska-mutilei zer esango zenieke?

Bidea oso luzea dela, eta oso zaila. Nahiz eta gauzak oso ondo egin, agian ez dute aukerarik izango. Horregatik, ikasketak oso garrantzitsuak dira. Nire kasuan ikasketak ez ditut utzi; pasa den ikasturtera arte unibertsitatean ibili naiz, Sarrikoan ikasten. Kontu biak, futbola eta ikasketak, egin ahal dira, eta bata ez bada aurrera ateratzen, bestea izango dute. ◀

gara. Gainera, niri urte horretan asko kostatu zitzaidan jokoan sartzeko, eta ez nintzen oso fin ibili. Hurrengo denboraldian dena konpondu zen; oso ondo jokatu nuen, eta, azkenean, igotzeko aukera daukazu, heltzen zaizunean. Inoiz ez dakizu aukera hori noiz helduko den...

Pasa den denboraldian, zuk 18 gol sartu zenituen, eta taldeak liga irabazi, eta bigarren mailara igo zen. Zelan bizi izan zenuen hori guztiori?

Askotan esan dudana moduan, dena oso azkar gertatu zait niri, eta pasa den urtekoa kristoren denboraldia izan zen niretzat, pertsonalki zein taldeari dago-kienez. Gainera, taldeak ondo egiten duenean, zeure burua ere indartsuago ateratzen da.

Horri esker, lehenengo taldean jokatzeko probaldian sartu zinen. Bertan geratzea ala kanpora ateratzea ziren zure aukerak?

Bilbao Athletic igo zen moduan, nire aukerak ziren: denboraldi aurrekoa egin eta gero, Bilbao Athletice-ra, bigarren mailara, jaitsi, ala, bestela, lehenengo taldean gelditu. Lehenengo taldean geratzeko aukera izan dut, eta, gainera, partida asko jokatu. Oso pozik nago horregatik.

Presio handia izan zenuen udan?

Iñigok [Lekue] eta biok opor gutxi izan genuen, 15 egun bakarrik, eta azkenean hori nabaritzen da, baina biak oso ondo heldu ginen denboraldi aurrekora.

Presioa izan ala ez, guk bagenekien ez igotzekotan, hemen jarraituko genuela, Bilbao Athleticen, eta hori, azken finean pizgarri bat da.

Zein aldaketa nabaritu duzu Kuko Zigandaren agindupean egotetik Valverdearentzat lanean egotera?

Biak oso ezberdinak dira. Baina niretzat biek gauza on asko dituzte, eta oso erraz lan egin daiteke haiek; oso eroso sentitu naiz biakaz. Hori oso garrantzitsua da jokalariontzat.

“Txikitan Lezaman hiru urte egon ondoren, Danok Bat-era bueltatu nintzen, Lezamatik kanpora bota nindutelako”

Zelangoak dira harremanak aldagelan?

Pasa den urtean, Bilbao Athleticen oso onak ziren eta aurreko denboraldian oso onak ziren. Azken finean lagunak gara denok aldagelaren barruan, eta ondoren, hori zelaian ere nabaritzen da.

Lortu duzu Adurizegaz sinkronizazio berezia?

Aritz Adurizek gauzak oso erraz egiten dituenaz, ba-



Iaz 865 pertsonak hartu zuten parte Erandioko Herri Krosean. © YOLANDA UGARTE - ERANDIO ATLETISMO ESKOLA

Erandioko Herri Krosa antolatu du domeka honetarako Erandio Atletismo Eskolak, Erandioko Udal Kirol Sailaren babesagaz. 27. edizioan, elkartasun-ekimena egongo da.

Oraindino izena eman daiteke Erandioko Atletismo Eskolak domeka honetarako antolatutako Erandioko Herri Krosean. Korrika-zaleek kontuan hartu beharko dute zapatuan 13:00etan amaituko dela inskripzio-epea, eta probaren egunean bertan ez dela onartuko izen-ematerik. Hala au-

keran dute Erandioko kiroldegira joan eta bertan orria betetzea, ala Internetez izapide hori egitea. Kiroldegira joateko ordutegia 18:00etatik 20:00etara izango da astegunetan, eta 11:00etatik 13:00etara, zapatuan.

Edozein kasuan, inskripzioa doakoa izango da denentzat; proba edo taldea sostengatu gura dutenek, be-

rriz, borondatezko diru-sarrera egin dezakete eskolaren kontu-korrontean.

Hori ez da izango aurten probaren inguruan izango den elkartasun-keinu bakarra. Izan ere, lehenengo aldiz, elikagai-bilketari ekin dio klubak pertsona behartsuak laguntzeko asmoz. Horregatik, antolatzaileek dei egin diete korrikalariei zein publikoari oinarrizko elikagaiak eroan ditzaten: arroza, tomate-tetrabrikak, pasta eta esnea.

Jasoko dituzten produktu denak Leioako Sortarazi elkarteari emango dizkiote, banaketa kudea dezan. Do-

mekan, Erandioko Herri Krosaren 27. edizioaren lasterketak 10:30ean hasiko dira; eskolako umeakaz. haur eta kadeteek 2.000 metro egingo dituzte; kimuek, 1.500; benjaminek, 1.000; eta benjamin aurrekoek, 500 metro. Horien ostean, 11:45ean familientzako lasterketa izango da, 750 metrokoa. Ordu erdi beranduago, 12:15ean, maila absolutuko 7 kilometroko proba hasiko da. Irteera eta helmuga Tartanga kalean egongo dira, Altzagako kiroldegiaurrean. ◀

izen-ematea: Turesultado.es

Waterpoloko haur-selektzioak, eskualdean

Euskadiko haur-kategoriako waterpolo-selektzioak Leioan, Getxon, eta Ezkerraldean prestatuko dira aste-akabu honetan. Aitziber Ortega, Mikel Ogara eta Joan Albella teknikariek nesken eta mutikoen taldeak zehaztu ondoren, lagunarteko partidak antolatu dituzte Espainiako federazioen arteko txapelketarako prestatzeko. Selektzioan, Leioako sei neska daude: Ane Salazar, Ane Arana, Naroa Etxaniz, Nora Toledo, Erika Lopez, eta Maider Sobera atezaina. Mutikoen artean, ber- rriz, lau dira Askartzako jokalaria: Joseba Uriarte, Nicolas Gorbeña, Iker Argote, eta Alejandro Camara atezaina. ◀

Gaubeka, binakako pala-txapelketan

Esteban Gaubeka Mendizabal *Oilar* armintzarrak barikuan jokatu du Munduko Pilota Batzarraren Binakako Pala Txapelketa Nagusiko bigarren partida, Ibai Perez sestaorragaz batera. Hitzordua 19:30ean izango da Mungia-ko udal pilotalekuan, eta bertan Dan Necol eta Xabier Ibargarai izango dituzte arerio. Bikoteak aldakorrak diren txapelketa bitxi horretan, Perezek eta Necolek Landeta eta Brefel garaitu zituzten pasa den astean. Gaubekak eta Ibargarai, ordea, Pablo Fusto eta Imanol Ibañezen aurkakoan galdu egin zuten, 3-1. Lau jokalariek partida ederra egin zuten. ◀

Olatu handien txapelketarik ez Galean

Olatu handien Galeako txapelketa bertan behera utzi du WSL Munduko Surf Ligak, lau hilabeteko itxarote-epea amaituta. Denbora horretan, WSLk olatu handien munduko txapelketa aurrera eroateko, ez da egon eskatzen duen 6-7 metroko olaturik, ezta gutxieneko baldintza meteorologikorik. Datorren urtera arte itxaron beharko da munduko surflaririk onenak Galean ikusteko. Hala, Olatu Handien Zirkuitua akabura heldu da, Greg Long estatubatuarra eta sailkapeneko burua munduko txapeldun izendatuta. Natxo Gonzalez surflari plentziarra 23. postuan lotu da. ◀



Itzubaltzeta mus finalean dago

Klaudio Flores «Jarraitu» eta Fernando Urriolabeitia «Per» Itzubaltzeta/Romoko muslariak Bizkaiko hamargarrenak geratu eta sailkatu egin dira Euskal Herriko VIII. Mus Txapelketako finalerako. Itzubaltzetarrek zapatuan jokatu dute nazio-finala, Zuberoako Urdiñarbe herrian. Bertan beste 127 bikote izango dituzte arerio. ◀

**SARTU GURE
WEB BERRIAN**
www.cianoplan.es
902 103 763

❖ kartelgintza



❖ inprimategia



❖ kopisteria



Lehiaketa. Non da?

Uribe Kostan ateratako argazkiaren hurbileko irudia duzu lehiaketa-atal honetako protagonista. NON eta ZERI ateratakoa den badakizu?



SARIA

Musiketan zikloa

Jodymoon-en

kontzerturako 5 sarrera bikoitz dauzkagu, Producciones Serranoren ekimenez.

Martxoak 13, domeka, 20:00;
BBK Aretoa (Bilbo)

Martxoaren 9a baino lehenago, helarazi erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bide bat hona: hiruka@hiruka.eus edo 944 911 337

Zorion agurrak

Bidali zeurea!

publi@hiruka.eus
94 491 13 37

5€



PERU
ALGORTA
Iloben partez

Uste zenuen zure urtebetetzea buruan ez geneukala, ezta? Apurtxo bat berandu, agian... Baina zelan ahaztuko genuen gure osaba gazteenaren eguna?! Zorionak, Peru!



LAURA
ALGORTA
Zure klanaren partez

Loriak udan ihintza bezala maite zaitugu, kanpotik ta barrutik dama gazte ta ederra. Zorionak Lau, gora zu!! Muxu handi bat!!



IXONE
ALGORTA
Ozpintxuen partez

Zorionak, Ritxo! Mila esker kuadrillari estilo propioa jartzeagatik. Ozpintxuen aholkulari ofizialarentzat, besarkada goxo eta iraultzailea! Ez zaitez aldatu, maite zaitugu!



KARLOS
ERANDIO
Berbotsen partez

Zorionak, Karlos!! Segi beti bezain positibo izaten, mesedez! Gure munduak zure baikortasuna behar du-eta. Zerbait falta denean... trankil!! Karlos joan da bila! Ederto pasa!!

Horoskopoa



Ura
(Abenduak 21-Urtarrilak 19)

Burugogor ospea irabazi duzu, eta ondo kostata, gainera. Zu horrelakoa zarenez, ez dago besterik esateko. Ez aldatu eta patxadaz jarraitu.



Aitzurra
(Martxoak 21-Apirilak 19)

Ahal baduzu, eskaini denbora gehiago zure familiari. Oraindino gehiago, bai; zure beharrea baitaude.



Garia
(Ekainak 19-Uztailak 18)

Bihotz onekoa zara, agian onegia. Apur bat bizkortu beharra daukazu. Horrela segituz gero, jipoi gehiegi jasoko duzu.



Meta
(Irailak 17-Urriak 16)

Oraingoan, egiozu kasu zeure aurpegiak positiboanari. Bestea kontuan izateko aukera ere helduko da noizbait!



Otsoa
(Urtarrilak 20-Otsailak 18)

Zelako nahastea duzun! Baina zuk zeuk bakarrik konpon dezakezu. Edozein zalantza izanez gero, egin kasu bihotzari.



Hostoa
(Apirilak 20-Maiatzak 19)

Munduan pertsona zoriontsurik bada, zeure antza izan beharko luke. Segi horrela, indar handia-gaz zaude, eta unea baliatu beharra duzu.



Lastoa
(Uztailak 19-Abuztuak 17)

Burua eta bihotza hotz izaten ahalegintzen zabil-tza. Buruak dagoeneko ikasi beharrekoa ikasi du; bihotzak behar handiago emango dizu.



Hazia
(Urriak 17-Azaroak 15)

Jakin badakite denek zuretzat ez dagoela kontu zailik, baina azkenean, zer egingo duzu? Ahaztea ere ez da konponbidea.



Adarra
(Otsailak 19-Martxoak 20)

Zure oreka ospetsuak ez du oraingoan ezertara-ko balio izango. Haserretu beharko duzu, kasu egin diezazuten gura baduzu.



Eguzkia
(Maiatzak 20-Ekainak 18)

Zeuri ere zitzada eman badizute, ondo hartu. Beti banatzen dabilenak batzuetan jasotzen ere jakin beharko luke...




Iratzea
(Abuztuak 18-Irailak 16)

Ondo dago lagunak zure tristuragaz aspertu gura ez izatea, baina berba egitea lagungarria izango litzateke, bai zuretzat, bai haientzat ere.



Negua
(Azaroak 16-Abenduak 20)

Ez zara egundo gai izango gauzen alde ona ikus-teko? Gogoan izan beti kexu dabilena nekagarri egiten dela!



Erantzunkidetasuna
Entzun duzu?

Corresponsabilidad
¿A qué te suena?





Mundukatuak

Marta Luja Martinez Algortarra

«Bertoko kultura ulertzeko, hau bizi beharra dago»

Unibertsitateko ikasketak hasi zituenetik, praktikak atzerrian egin behar zituela argi zuen Marta Lujak. Hala, laugarren maila hasi, eta Latinoamerikara joateko hautua hartu zuen. Hasieran, Guatemala edo Nikaragua joan gura zuen; ondoren, El Salvadorren proiektu interesgarri batez «maitemindu» zen, auzo behartsu bateko emakumeak ahalduntzekoa eta bertoko umeak heztekoa. Hala ere, «unibertsitatea ez zegoen prest ikasleak gatazkak» zeuden herrialdeetara bidaltzeko; hortaz, Bolivia edo Dominikar Errepublika eman zioten aukeran. Hala, zalantza ugari argitu eta gero, «paradisura» joatea erabaki zuen, behar egitera. Bertan, proiektu bi garatzen dabil: lehenengoa, eskola publiko biko neskak ahaldu eta hezi, gaur eguneko eskema sozial matxista ez errepikatzen; eta bestetik, fundazioko neska-mutlei lagundu,

arlotan emozionalean zein akademikoan. Halaber, behartsuenentzako liburutegi bat martxan ipintzen ere badabil.

Jan eta edana

Arroza jaten dute egunero herrialde horretan, *guandal*-akaz (dilistak), *abi-*

“Sexua edozein lekutan nabari daiteke; eguneroko kontua da”

txuela-kaz (indabak), *locrio*-gaz (hargia edo arraina). Gainera, «dominikar bazkaria eta ez gringoena» izateko, platerak hiru osagai izan behar ditu; esaterako, platano berdea, entsalada eta arroza. Edariari dagokionez, «dominikarrek apenas edaten dute urik»; horren ordez, askotariko zuku naturalak

edaten dituzte. «Zer esaterik ez dago: rona bertokoen egunerokoan errotuta dago», garagardoagaz batera.

Zer ikusi

Leku berri bat ezagutzea dela «gauzarik politena» dio algortarrak, hango «hondartza, mendi eta ibai guztiak liluragarriak dira; eta baleak jolasean ikustea, gainera, izugarria da!». Hala ere, Los Haitises Parke Nazionala eta irlako hegoaldea (Pedernales, Enriquillo lakua, Las Aguilas badia) ezagutzeke ditu oraindino. Gune historikoei dagokionez, Koloni aitortutako itsasargia, Trujillok eraikitako piramideak, eta independentziaren alde borrokatu zuten heroien monumentua bisitatzea gomendatu du. Turismoa, berriz, «hein handi batean sexuala izan ohi da; eremu turistikoetan 15 urteko neskak ikus daitezke 60 urteko zahar nazkagarriak», salatu du Lujak.

NOR DA

Nongoa

Algortakoa

Adina

22 urte

Zertan dabil

Garapenerako lankidetzako praktiketan, Mahatma Gandhi fundazioan.

Ikasketak

Gizarte-hezkuntzako gradua.

Noiz arte Dominikar Errepublikan?

Praktikak amaitzerakoan bueltatuko da Algortara, hau da, hilaren 28an bertan.

NON DAGO



Lurraldea

Samana, Dominikar Errepublika.

Azalera

862,8 km²

Hiria

Las Terrenas

Biztanleria

13.869

Hizkuntzak

Gaztelania da hizkuntza ofiziala, eta antillar forma darabilte ohituraz. Hala ere, afrikanismo, neologismo eta erdarakada asko erabiltzen dute, batez ere ingelesetik datorrena, AEBek eragiten duen presio kulturala dela-eta. Samana penintsulan, halaber, ingeles asko entzun daiteke, XIX. mendean AEBetatik etorritako esklaboen oinarriko ugari baitaude. Frantsesa ere entzun daiteke leku askotan.

Dirua

Pesoa

Erakunde laguntzaileak:



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua